



HIRI HEZITZAILEA

"Hiria, Hezkuntzaren H
hizkiarekin idazten da"

32.zk
2009ko ekaina

IDEA

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA



4 Orrialde
 Patricio de Blas Zabaleta
 Parte hartzea sistema hobetzeko aukera duen aldagailu palanka da

5 Orrialde
 Zer da hiri hezitzailea?



7 Orrialde
 Joan Manuel del Pozo
 Herri batek hezkuntza-potentzial izugarria garatzen duenean...

9 Orrialde
 José Iribas Sánchez de Boado
 Iruñea, hiri hezitzailearen eredua



10 Orria Elkarrizketa
 Carlos Perez Nieves, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaria



11 Orria
 Elkarrizketa
 Carmen Maestro Martín
 Estatuko Eskola Kontseiluko burua



13 Orria
 Elkarrizketa
 Pedro Rascón Macías
 CEAParen burua



14 Orria
 "Medellin, heziera onena"



15 Orria
 Elkarrizketa: Teresa Úcar Echagüe
 Nafarroako Eskola Kontseiluko burua

17 Orria Testua: Patricio de Blas-ren ponentzia
 25 Orria Testua: Joan Manuel del Pozo-ren ponentzia
 29 Orria Testua: José Iribas-ren ponentzia

IDEA

32.zk. 2009ko ekaina
Nafarroako Eskola Kontseiluaren aldiskaria

ZUZENDARITZA, ERREALIZAZIOA ETA DISEINUA
Nafarroko Eskola Kontseilua

TESTUAK

María Jiménez Ramos

Roberto Escudero Fernández

Nafarroako Unibertsitatearen Komunikazio Fakultatearen Kazetari-tzako ikasleak

ARGAZKIGINTZA

Ibai Abaurrea Mateo

Iruñeako Arte Eskolaren Argazkigintza Artistikoaren ikaslea

IMPRIMATZAILEA

Ona, Industria Gráfica S.A.

LEGE-GORDAILUA:

NA-1482/2006

X. Jardunaldia

“Hiria Hezkuntzaren H hizkiarekin idazten da”

Itxaropena, bazterkeria, langabezia eta pobrezia gainditzeko; itxaropena, ulermenaren, errespetua, elkarbizitza baketsua, aukera-berdintasuna eta ezagutzaren erdiespena hobetzeko.... Azken batean, itxaropena, pertsona guztien ongizatea, osasuna eta osotasuna eskuratzeko, hemen, han eta munduko txoko guztietan.

Hori guztia Hezkuntza hitzaren H hizkiarekin adierazi nahi da, eta Medellinako Sergio Fajardo alkate ohiak 2009ko apirilaren 24an ospatutako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Topaketaren X. Jardunaldian eta Zentroko Eskola Kontseiluetan igorritako mezua izan zen.



Jardunaldia jorratzeko aukeratutako gaia, hots, “Gizartearen parte-hartzea Hezkuntzan. Herri Hezitzailea”, eskola kontseiluen gunea eta jatorria da, eta, aldi berean, horren xede nagusia izan da.

Esku-hartzeen antolaketa bi zatitan bereizi zen. Lehenengoan, gizarteak irakaskuntzaren kudeaketan parte hartzeko duen eskubidearen konkista demokratikoa landu zen. Bigarrenean, bestalde, parte-hartze horri zuzendutako testuinguru eta agertoki berriak azaldu ziren: herria. Herria, hezkuntza-ekintzak ikasgeletako hormak zeharkatu eta hirigunean kokatuta. Hezkuntza lantzeko denbora 24 ordu hartzen dituen herria, urtean 365 egun, ikastetxearen ordutegiaz eta egutegiaz haraindi; instalazio eta erakunde guztiak hezitzaileak barnean hartzen dituen agertokia eskaintzen du, eskola-adina gaintitu eta pertsona guztiei zuzendutako hezkuntza-eskaintzarekin batera, horien adina nahiz baldintza kontuan izan gabe, bizitza osoan zehar ikaskuntza etengabea izan dadin; ikaskuntza formala, ez-formala eta informala nahasten diren agertokia, bederen.

Hizlariez gain, jardunaldian Pablo Sarate Kontseibatorioko ikasleek parte hartu zuten.

Idea Aldizkariaren zenbaki horretan Iruñako Arte Eskola nahiz Nafarroako Unibertsitatearen Komunikazio Fakultateko ikasleek egindako kazetaritza- eta argazkigintza-erreportajea jasotzen da.

Hitzaldien testu osoak gure webgunean kontsultatu daitezke: <http://irati.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra>

Jornada del CONSEJO ESCOLAR de NAVARRA

con los Consejos Escolares de Centro

X Nafarroako ESKOLA KONTSEILUAREN Jardunaldia

ikastetxeetako kontseiluen arteko

La participación de la sociedad en la educación.
La ciudad educadora
Gizartearen partaidetza hezkuntza arloan.
Hiri Hezlea

Gobierno de Navarra

Ayuntamiento de Pamplona
 Iruñeko Udala

can

Parte hartzea sistema hobetzeko aukera duen aldagailu palanka da



Patricio De Blas Zabaleta
Estatuko Eskola Kontseiluko Presidente ordea

María Jiménez Ramos

Patricio de Blas Zabaleta, Estatuko Eskola Kontseiluko presidenteordeak hezitzaileen zereginen azterketa egin zuen herritarren partaidetzaren esparruan, horretarako, heziketa formala osatzen duen ororen sendotasunak eta ahultasunak errepasatu egin zituen, hala nola, irakasleenak, gurasoenak eta ikasleenak. Hala eta guztiz ere, De Blas Zabaletak heziketaren testuinguru nagusia ekarri zigor gogora, hau da, funtsezko eskubideetako, “batzuetan kontzesio gisa ulertzen bada ere”.

Espainiar konstituzioa bera da herritarroi gizar-tean parte hartzeko bideak irekitzen dizkiguna, eta bizitza sozialean aktiboki jarduteko aukera ematen digu. De Blas Zabaletak azaldukoaren arabera, arazoa da Karta Mag-nak marjina zabalak uzten dituela legeilearen esku: “Zein

da parte hartzearen norainokoa: entzuna izatea ala esku hartzea?”. Estatuko Eskola Kontseiluko presi-denteordeak adierazi zuenez, erantzuna “legegintzako gorabeheretan” eta parte hartzeko mar-jinak eman eta ukatu dituzten heziketa arauetan dago, geroago, (LOGSE) Hezkuntza Sistemaren Anto-lamendu Orokorrerako Legearen etorrerarekin “eskola kontseiluak eskumenik gabe gelditu ziren”.

Neurri handi batean irakaslez osatutako ins-titutuzio horiei dagokienez, De Blas Zabaletak onartu egin zuen “parte hartzearen errege direla”. Izan ere, horien %90 es-kola kontseilue-tako “haien ingu-rune naturala” kide dira. Hala ere, onartu zuen “datuen atzean ez dago eskola ko-munitatearen defendatzaile suturik, entu-siasmo pixka bat eta, seguru asko, legearekiko neu-rrizko errespetua eta nolabaiteko betebeharraren zentzua baizik”.

Esku artean oinarrizko eskubidea dugu, eta hori aitortuta ikusteko denbora luzea igaro behar izan bada ere, gutxi egikaritzen da. Ha-laber, aldaketez beterik dagoen hezkuntza-sistema dugu, eta badi-rudi, ezinezkoa dela hori iratzar-tzea murgilduta aurkitzen den lo-zorrotik. Hezkuntza-ikerketak, eta aspalditik gertu dauden esperi-entziak parte-hartzea jende-oldea mugitzeko palanka bikaina dela ohartarazten digute. Beraz, hori erabili dezagun.

Hezitzaile gisa izandako esperientzia azalera-tuz, Estatuko Eskola Kontseiluko presidenteordeak ez zuen inolako zalantzarik izan gremioaren partaidetza arazo nagusia adierazterakoan: “Guri dagokigun es-parruan beste batzuk sartzeak kezkatzen gaitu”, onartu zuen. Beste batzuk horiek gurasoak dira, ikas-tetxean, batzuetan, arrotzat hartuak izaten direnak. “Irakasleak oso kritiko dira legeak familiei eta ikasleei emandako eskumenekin”, aitortu zuen. Horrek klaus-troko irakasle guztiek soilik eztabaidatzen zuteneko garaia-ren falta sentiarazten dio irakasle sektore oso zabalari.

Hala ere, eta irakasleenaz gain, beste batzuen ahotza entzuteko paradaren aurrean, De Blas Zabaletak ez du zalantzarik gurasoen inplikazioak duen garrantzia azpi-marratzerakoan. Gizarteak, berak azaldu zen bezala, ezin utzi dezake irakasleen esku eskusiboki bere kontrolpean ez dauden gaiak. Hori dela eta, “irakasleek familien beha-rra dute eta alderantziz, eskolatik kanpo jokatzeko eta es-kola barneko agintea sendotzeko”, nabarmendu zuen.

Familiek, bestalde, gutxiengoa osatzen dute es-kola kontseiluetan, eta ez dagozkien gaiez mintzatu ohi direnez, ordezkariak deslegitimatua geratzen dira. Horren ondorioz, adierazten du De Blas Zabaletak, baldin eta gu-rasoek parterik hartzen ez badute, ezin aldarrikatu ditza-

kete ikasleen eskubideak, eta haien jokaera zentroa auke-
ratzeari mugatzen zaio, “hutsaren hurrengoa delarik”. Ho-
rrez gain, ez du zalantzarik eztabaidagaia planteatzera-
koan: “Baldin eta gurasoek seme-alabak maite badituzte,
zergatik ez dute zentroetan parterik hartzen?”.

Seme-alaba horiek, ikasleak, dira, hain zuzen,
Estatuko Eskola Kontseiluko presidenteordeak “harrizko
gonbidatu” gisa deskribatzen dituenak. Berak azpimarratu-
takoaren arabera, ikasleek egoera kontraesankorrean
daude, izan ere, parte hartzeko eskaera egiten zaien bitar-
tean, aldi berean, tutoretzapeko partaidetza antolatzen da,
“ikaslearengan eskizofrenia” moduko bat eraginez. Gero,
ziurtatu zuen bezala, ikasleek zeresan handia dute, hortaz,
elkarrekin hitz egiteko beharra, eta horrela jakingo dugu
zer den interesatzen zaiena.

Abagune horren aurrean, De Blas Zabaletak aitor-
tutakoaren arabera, une delikatuan bizi gara partaidetza
hezitzaileari dagokionez, eta nolabaiteko adore eza nabar-
mentzen da. Hala eta guztiz ere, funtsezko eskubidea dela
azpimarratu zuen, era berean, “sistema mugiarazi eta ho-
betzeko gai den palanka”.

María Jiménez Ramos

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 26. artiku-
luak jasotakoaren arabera, pertsona orok du heziketa es-
kubidea, horrez gain, zera aipatzen du: “heziketaren helbu-
ruea giza nortasuna guztiz garatzea izango da”.

Familia, eskola eta, oro har, gizarteak izan dira he-
ziketa eragile tradizionalak. XX. mendearen erdialdeko
aurrerapen teknologikoen ondorioz, hedabideak gizarte
eragile bihurtu egin ziren, gero eta pertsona kopuru han-
diagora iristeko gai izanik, heziketa iturri gisa jarduteko
aukerarekin. Geroago, pasa den mendearen buruan, ins-
tantzia hezitzaile berriaren ideia agertu zen. Heziketa era-
gile berria ez zen asmakizun teknologikorik, ez eta, peda-
gogo ameslari baten burutazioa ere, aurkikuntza baizik,
hau da, guztion bizitzen inguruan dagoen zerbaiten alderdi
hezitzailearen aurkikuntza ofiziala eta aitortua: hiria.

Gezurra badirudi ere, ez da beharrezko hiria hezi-
keta eragile bihurtzea: hiria, berez, hezitzaile baita. Alegia,
hirian gertatzen denak eragina du biztanleengan, eta, gai
horretan, hobetu edo okerragotu egiten ditu.
Aisialdi, kultur eta kirol jarduerak, hirigintzak eta
bere plangintzak, ingurumenarekin zerikusia
duten gaiek, osasunak, segurtasunak eta mug-
kortasunak, hedabideak eta hiriak sortutako eta
eskainitako zerbitzu guztiek eragina dute biztan-
leengan, eta heziketa modu desberdinak ematen
dizkiete.

Hala ere, hiri hezitzaile bihurtzeko au-
kera dugu, baldin eta hezteko asmoa badago,
eta garatutako jardueren, gau-
zatutako ekintzen zein politi-
ken eta biztanleei horiek era-
kusteko eraren helburua elkar-
bizitzarako modu berriak eta
hobeak kontzienteki sortzea
bada, balio, ezagutza eta gaita-
sun berriak eta hobeak bere-
kin ekarriz. Azken finean, biz-
tanleen bizitzaren kalitatea eta
erak hobetzea da hiri hezitzaile
ororen xedea.

Hiri hezitzaileek osa-
tzen duten mugimendua
1990. urtean agertu zen Bar-
tzelonako Hiri Hezitzaileen

Nazioarteko lehen kongresuan. Orduko hartan
hainbat hiritako toki gobernuek Hiri Hezitzaileen
Gutuna sinatu eta proiektu zein jarduera komu-
netan elkarlanean aritzeko konpromisoa hartu

Zer da hiri hezitzailea?



IDEA 32

zuten, biztanleen bizimodua hobetze aldera. Lau urte beranduago, 1994an, Bolognako hirugarren kongresuan, hiri hezitzaileen Nazioarteko Elkarte eraturik geratu zen ofizialki. Hala eta guztiz ere, hiriri dagokionez, herritarren hezitzaile gisako kontzeptuak grekoen polisean izan zuen jatorria, non heziketa leku itxietatik atera eta esparru publikoak okupatzen zituen. Azkenaldiko historian, UNESCO izan zen, 1972an, hirian bertan ikaste-agertokiak sortzeko ideia berreskuratu zuen erakundea.

premien, proposamenen eta jardueren ebaluazioa egitea. Azken finean, balio demokratikoak sakontzean eta ardatz pedagogikoaren presentzian oinarritutako politika, herritar hobeak sortzeko asmoz.

Hiri hezitzailearen proiektua ez da modu bakarrean eta espezifikoa gauzatzen, alderantziz, hiri bakoitzaren posibilitateetara eta premietara egokitu ahal eta behar da. Eskola ordutegitik kanpo ikastetxeetako instalazioak erabiltzea, adinekoren aisialdiari begirako jarduerak



Gaur egun 400 hirik sinaturik dute Hiri Hezitzaileen Gutuna. Euren konpromiso nagusia elkarlanean aritzean eta esperientziak elkartrukatzean datza, horrez gain, gobernuen erabakietan eragiten ahalegintzen dira, beti ere euren garapenean zerikusia duten gaietan. Gutunari atxikitako hiririk gehienak espainiarrak badira ere, badaude Belen, Montevideo edo Munich bezalako hiriak.

Hiri hezitzailearen kontzeptuaren garapena ez da talde murrizt baten lana soilik, herritar guztiena baizik. Alabaina, hiriaren pedagogia bultzatzen duen konpromiso politikoa ezinbesteko den legez, udal gobernuak, herritarrekiko ezaguera eta hurbiltasuna direla eta, heziketa proposamenak zuzendu eta kudeatzeko aproposenak bide dira. Udalbatzen funtzioak hiru ekintzotan artikulatzen dira: hiriak agertzen dituen prestakuntza aukerei buruzko argibideak ematea, herritarren partaidetza sustatzea eta

edo bibliotekak sortzea, kasu baterako, hiri hezitzailearen kontzeptu barruan kokatzen dira. Bada, hortaz, etengabe eraikitzen ari den prozesua, mota guztietako proposamenek irekia. Hori bai, maxima honen pean: hirian eta hiriaz ikasi.

Hiria entitate hezitzaile gisa hartzeak heziketaren kontzeptu zabala dakar berekin. Izan ere, familian eta eskolan jasotako heziketa kontuan hartzeak soilik denboran eta espazioan mugatzea esan nahi du. Alegia, heziketa familiaren bitartez etxeetan eta eskolaren bitartez ikasgeletan edo bien bitartez bizitzaren zati mugatuan jasotakoaz gain, heziketa da bizitza osoan zehar bizi gareneko ingurunean jasotzen duguna. Eta hiria agian da ondorengo bi baldintza hauek hobeki betetzen dituen elementua: geure bizi espazioa da eta norberaren historia pertsonalaren hasieratik amaiera arteko bidelagun dugu.





Roberto Escudero Fdez.

Joan Manuel del Pozo, gaur egun, Kataluniako Korporazioko Ikus-entzunezko

baliabideen gobernu sailburua da eta baita ere 2004ko Hiri Hezitzaileen Gutuna berritzearen arduraduna. Bere esanetan, globalizazioa, teknologia berriak eta denboraren kontzepzio puntillista dira hiri garaikideek azken urte hauetan jasan dituzten aldaketak. Bere ustez, aldaketa horiek eremu publiko demokratikoa eta gizarte kohesioa hondatzen dute.

Del Pozo irakasleak esan zuen globalizazio fenomenoak espazioaren “uzkurdura oso gogorra eta denboraren azelerazio oso bizia dakartzala. Gaur bizi garen espazioa–esan zuen- oso txikia da, abiadura handian mugitzen garelako”. Esan zuen gizakiok “ezin diezaiozula utzi espazioa betetzeari ezta denboran aurrera egiteari ere.” Eta azpimarratu zuen denborak daraman erritmoa aintzat hartu beharra dagoela: “Gaur egun azelerazioan bizi gara, duela ehun urte baino ondasun eta zerbitzu gehiago eskuratzea ahalbidetzen digun azelerazioan, alegia; baina orekaren, osasunaren eta parte-hartzeko gaitasunaren kontura”.

Del Pozoren arabera, migrazioak globalizazioaren eredu dira. “Migrazioak aberasgarriak dira; baina, aldi berean, hirien konplexutasun elementua sortzen dute”. Migrazio fenomenoak –erantsi zuen- hezkuntzarekin zerikusi handia duten aukera, erronka eta

zailtasun ugari ditu.

Teknologia dagokionez, berriz, esan zuen hirietako bizitza “izugarri” aldatzen ari dela; izan ere, bizitza mota horrek ezohiko erraztasunez komunikatzeko aukera ematen du, nahiz eta beti ez egon “eduki onen zerbitzura”.

Halaber, nabarmendu zuen irudia “gero eta indar handiagoa” hartzen ari dela; irudi hori “ekoizteko eta kontsumitzeko erraza da, eta errealtatea bera eta hitza ordezkatzeko ari da”. Bere ustez, irudia hitzari gailentzeak gaitasuna galtzea dakar eta homo videns bihurtzen du homo sapiens sapiensa. “Izaki linguistikoa garelako” azpimarratu zuen.

“Ondorio batzuk, hemen bakarrik aipatutakoak, pertsonen, ibilgailuen eta mota guztietako produktu eta ondasun materialen eta ez-materialen mugimendua eta azelerazioa dira; gizalegezko eta gizakien errealtatearen orde- edo gutxienez erlatibizazioa- hori ordezkatu eta erakusten duten irudiak, ikurrak eta erakusleihoak modu mailakatuan aldatu dira”

Hirugarren aldaketa gisa aipatu zuen denbora puntillistaren sarrera, uneak modu kaotikoan biltzea, alegia. Iraganari dagokionez, esan zuen “iragana iraungita dagoenaren ideia onartu dugula. Iragana burutua dago, aktuala da, egia esateko”. Hiriek beren iragana ez dute ezagutzen eta, ondorioz, Del Pozok azaldu bezala, ondare eta nortasun zentzua galtzen dute eta hiritarrek parte-hartzeko nahia galtzen dute. “Zergatik

**Joan Manuel
del Pozo**

**Herri batek hezkuntza-
potentzial izugarria
garatzen duenean,
hiri-bizitzaren, gizarte-
kohesioaren
eta gizalege
demokratikoaren kalitatea
areagotu egiten da**

IDEA 32


parte hartu ezagutzen ez dugun zerbaitetan?” planteatu zuen.

Illo beretik, erantsi zuen partaide sentimendu kolektibo faltak kanpotik datozen pertsonen integrazioa zailtzen duela eta baita hezkuntza formala eta informala, erreferentzia puntu komunak ezegonkorrak bihurtzen direlako.


Globalizazioak, teknologia berriek eta denboraren kontzeptzio puntillistak eremu publiko demokratikoa (bizikidetza eta parte-hartzea ahalbidetzen duena) eta gizarte kohesioa arriskuan jartzen dute, Del Pozoren ustez.

Irakasleak polis greziarra aipatu zuen parte-hartze adibide gisa. “Greziarrek ezin uler zezaketen interes orokorretan aktiboki ez zedila parte hartu”, azaldu zuen. Eta, ohartarazi zuen, hiriak ondoan ipinitako banako almagar bihurtzen badira, “hiri inguruan hezkuntza hobetzeko aukera asko galtzen ariko garela”.

“..herritarrak ez dira elkar ulertzen justaposizio hotzean kokatutako gizabanako gisa, ezpada lankidetzan eta elkarbizitzan aktiboan lan egiten duten pertsona gisa. Justaposizio hutsak ez du sortzen herria, biltegia bakarrik baizik. Elkarbizitzan parte-hartzaileak eta elkarerreragileak herriaren esparrua eraikitzen du, eta proiektu politikoei zentzu zintzoa ematen die: “paideia” greziarraren espiritua bultzatuta, “polis” kontzeptuaren ideia eta kontzientziarekin bat etorritik.”



**Iruña,
herri hezitzailearen adibidea**





José Iribas Sánchez de Boado

Iruñeako Udalaren Lehenengo Alkateordea

Musika, Marrazketa eta Pintura Udal Eskolak; Hizkuntza Eskola Ofiziala; Civivox-ak eta Gaztetxea. Iruñeak hezkuntza eskaintza “zabala du, berri-tzailea, desberdina eta plurala”, esan zuen Iribasek.

Alkateordeak, Hezkuntza zinegotzi gisa ere jarduten duenak, adierazi zuen Udalak duen aurrekontua ia hirukoiztu egin dela 1995-96 ikasturte-tik, 2009. urtean 9,3 milioi eurotara iritsi arte; aurrekontu hori erabiltzen du ikastetxeak manten-tzeko, hezkuntza pro-grama osagarrietarako eta zentroak eta APYMA-Sak subentzionatzeko.

Udalbatzak sare bidez jarrai daitezke. Uda-larekin izandako informazio bideak area-gotu dira. Asoziazionismoa eta boluntario-tzat babesten ari dira. Eta teknologia berrien erabilera sustatzea da helburu, Pamplona Futura Planari esker. Hori guz-tia hezkuntza lanaren mesedetan, dio Iribasek.

Edonola ere, esan zuen bide luzea gera-tzen dela oraindik ere, eta 2016an kultu-raren Europako hiriburu izateko Iruñeako

hautagaitza aipatu zuen, erreferentzia puntu gisa, “Iruñeak etorkizun hurbilean izan nahi duen hiri motaren inguruan hausnartze aldera”.

Roberto Escudero Fernández

“Iruñeak prestakuntzarako ahalmen izugarria du, eta ahalmen hori egunero balioan jarri be-harra dugu, hiritar guztiek aprobetxatzeko au-kera izan dezaten. “Horrela esan zuen José Iribas Nafarroako hiriburuko alkateordeak, Joan Manuel del Pozorekin batera egon zen mahai-inguruan.

Iruñeako Udalak aho batez sinatu zuen Hiri Hezitzaileen Gutuna, 1995. urte amaieran, eta “urte gutxian erabat itxuraldatu dugu gure hiria”, esan zuen Iribasek.

Illo beretik, hiriko hainbat zentro kultural aipatu zituen, adibidez: ahur eskolak; Baluarte; Gayarre antzokia; Kontserbatorioak;



“Hezkuntza arloan dihardugun instituziook heziketarekiko gizartearen konpromiso sendoagoaren beharrea gaudeen”



Carlos Pérez Nieves
Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Kontseilaria

María Jiménez Ramos

Botere publikoek funtsezko zeregina betetzen dute heziketa arloan. Hala ere, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak, Carlos Pérez-Nieves, herritarren parte hartzea heziketan eskatzen du. Berak azaldutakoaren arabera, lehen, gizarteak parte hartzea exijitzen bazuen ere, gaur egun, ordea, gizarteak berari eskatu egin behar zaio. Horrez gain, Pérez-Nievasek, inolako zalantzarik gabe, foru komunitateko heziketaren erronka handia zein den adierazten digu: hizkuntzak.

Zein itzaropen jarri du Nafarroak Hiri hezitzaileen proiektuan?

tuan?

Hiri hezitzaileek Administrazioan antzemandako premia batean dute jatorria, hau da, beharrezko da herritarrekiko partaidetza, heziketa ez baita eskolan amaitzen, gizarte eta jolas alderdietara zabaltzen delako. Eta udalak azken horiek eskaini behar dizkigu, jardunaldiak, jardueren eta instalazioen erabilpenaren bitartez, bizitza osoan zehar baterako hezkuntza azken xede delarik.

Zein da foru gobernuak duen zeregina proiektuan?

Gobernu autonomikook oso harreman zuzena dugu udalekin: heziketaren jatorrizko esparruak eraikitzeke funtsezko partida ekonomikoak ematen ditugu. Hortik abiatuz, eskola egunez kanpoan instalazioen, patioen eta biblioteken erabilpena bezalako kontuek autonomi administrazioaren eta toki administrazioaren arteko koordinazioaren beharra daukate, erantzukizunak bien ardurapean baitaude.

Aldatu al da herritarren parte hartzea nafar gizartearen azken urteotan?

Parte hartzea norabidez aldatu da, eta lehen eskaria zena, orain premia bihurtu da. Hezkuntza arloko instituzioek heziketa proiektuarekiko gizartearen konpromiso sendoagoa behar dugu. Arazoa da parte hartze urriegia dugula, gizarteak gai publikoetan inplikatzeko ez baita. Hogeita hamar urte ingururen buruan, parte hartzea eskatzetik parte hartzea justifikatzeko argudioak bilatzera pasatu gara.

Eta zein argudio eman dakieke herritarrei?

Inplikazioak duen garrantzia. Gakoa da, gizarteak parte hartuko duelakoan, mekanismoak artikulatzen direla, alabaina, errealitateak horren bestelakoa erakusten digu. Alegia, parte hartzearen aldeko argudio nagusia honetan datza: organismoak parte hartzeari begira pentsatuak direnez, baldin eta herritarrak partetik hartzen ez badu, seguruenik berarekin sintonizatzen ez duen eta kontrolpean eduki ezin dezakeen beste batek ordezkaturiko du. Hori dela eta, normalizat jotzen da gehingoaren interesak defendatzen ez dituzten gurasoen elkarteak eta sindikatuak topatzea, hortaz, aldarrikapenak gutxiengo baten esku geratzen dira. Horrek sistema deformatzeaz gain, guztiz eraginik gabeko bihurtzen du.

Egoera honen aurrean, nola jokatu behar duten botere publikoek?

Bestelako neurriak artikulatu behar dituzte, parte hartzea pizte aldera, alderdi formalen bidez ez bada ere, bai aisialdian, kirol klubetan eta kultur jardueretan parte hartzeko aukera ematen duten zeharkako bideen bitartez, beti ere

osagarri hezitzailearen batekin.

Heziketarekin erlazionatutako beste gai batzuei dagokiernez, PISA txostenaren Espainiako hezkuntzari buruzko probak gauzatu berri dira Nafarroan. Eskola porrota al da espainiar sistemaren gaitz larrietako bat?

Bistan denez, arazoa da, nahiz eta Nafarroako eskola porrotak erakusten dituen portzentajeak, gutxi gorabehera, beste komunitateen erdikoak diren, Euskadikoak izan ezik. Halaber, ulertu beharra dago, hamasei urte bete arte, neska-mutiko guztiak eskolatuak direla nahitaez, lehenago gertatzen ez zena, izan ere, OHO amaitu bezain laster, bahetze handia egiten zen, eta horrenbestez, hamasei urteko ikasleen %30 edo %40 besterik ez zen iristen. Gaur egun, ordea, denak daude ikasgelan, hau da, denak iritsi behar dira, eta nekez lortzen da.

Zer egin behar da ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntza behar bezala amaitu ahal izateko?

Iristeko modu desberdinak ezarri eta alternatibak eskaini beharra dago, denak maila normala lortzeko gai ez direlako, zenbait arrazoi direla medio: deserrotze soziala, ekonomikoa edo zailtasun fisikoak edo burukoak. Ahaleginak egin behar ditugu ikasle guztiek bigarren mailako hezkuntza egin dezaten, geroago, bestelako prestakuntzan jardun ahal izateko, LH edo unibertsitatea. Nafarroa horrela jokatzeko ari da aspaldidanik: derrigorrezko irakaskuntzaren curriculumak dibertsifikatzeko eta prestakuntzan laguntzen duten ordeko planak prestatzeko beharra ikusi zen, hori dela eta, eskola porrotaren portzentaje horiek erakusten ditugu. Horretara, norberaren gaitasunei egokitutako formulak bilatzen ez baditugu, portzentaje altuak mantendu egingen dira.

Dena dela, askoren iritziaren arabera, ikasleei exijitutako esfortzua murrizteko joera da.

Malgutasunez jokatzek ez du esan nahi eskakizun maila murriztuko denik, norberaren beharrik egokitzen dela baizik. Zailtasunak dituzten zenbait ikasle ikasgela berean mantenduz gero, guztien maila jaistea esan nahi du. Gure planteamendua norberak beregandik onena emateari begira dago. Ikaslerik onenak txarrenen eragozpenekin mantenduz gero, azken horiek ez dute inoiz nahikoa gaitasunik edukiko, eta, azkenean, sistemari utziko diote. Beste batzuek beste ikuspuntu bat dute, eta denak batera ikasgela berean mantendu nahi izan dute, azkenean, eskakizun maila jaitziz. Eta hori izan da, hain zuzen, Espainiako hezkuntzaren akats nagusia azken urteotan.

Gaur egun, zein da Nafarroak duen heziketa erronka nagusia?

Erronka nagusia da, etapa hezitzailean zehar hartutako hezkuntza eskumenak direla medio, ama hezkuntza ez den beste batez goi mailako ikasketak egiteko gai izatea. Ho-

rixte da, hain zuzen, Espainiak duen erronka nagusia, horren inguruan orain arte izan dugun politika desastre hutsa izan baita. Guztiz sinetsirik nago hezkuntzek ate asko irekitzen dizkigutela, horrela, gaur egun ingelesez jakin gabe edonor analfabeto funtzional gisa geratu daiteke. Ezinezko da pentsatzea beti toki esparruan lan egingo dugula, hala nahi badugu ere. Adibidez, berton instalatzen den edozein enpresak hezkuntzak menderatzen dituen enpleguak kontratatuko ditu. Azken finean, beste hezkuntza batzuk ulertzeko, ikasteko eta mintzatzeko gai diren neska-mutilak nahi ditugu, gure ustez oso garrantzi handia duelako.

Carmen Maestro Martín

Estatuko Eskola Kontseiluko burua



Roberto Escudero Fernández

Carmen Maestro (Madril, 1954) Estatuko Eskola Kontseiluko lehendakariak, defendatzen du, hezkuntzan parte-hartzeko, hartutako erabakiak kudeatzeko eta ebaluatzeko autonomia oinarritzat hartu behar dela: "ikastetxe baten

errealitatea ezagutu eta gero, hezkuntza proiektuko helburuak zehaztu behar dira, abian jarri behar dira arazoak konpontzeko bitartekoak eta hartutako bitartekoak eraginkorrak diren edo ez zehaztu behar dira”, dio Maestrok.

Nola baloratzen du gizarte espainiarrak hezkuntzan duen parte-hartzea?

Oso arau aurreratuak ditugu parte-hartzeari dagokionez. Baina praktikan, bide luzea geratzen da oraindik. Gizarte indibidualista eta kontsumista batean bizi gara. Gurasoek, kontsumitzaile gisa, beren seme-alaben ikastetxea aukeratzenean dute, eta gero, behar baino gutxiago inplikatzenean dira ikastetxearen bizitzan. Ikasleek ere gehiago parte hartu beharko lukete. Eta ez dago harreman esturik Eskola Kontseiluko kideen eta eurek ordezkatzenean dituzten taldeen artean.

Zeintzuk dira Hezkuntzaren Lege Organikoak (HLO) barne hartzen dituen aldaketak, parte hartzeari dagokionez?

Hezkuntzaren Lege Organikoa onartu arte, Eskola Kontseiluek oso autonomia gutxi zuten. Zergatik parte hartu behar genuen pentsatzen genuen, baldin eta Administrazioak gure erabakien % 90a ixten bazuen. Hezkuntzaren Lege Organikoak ikastetxeei kudeaketak egiteko autonomia handiagoa ematen die. Ildo beretik, Eskola Kontseiluak ondorio hauek eragin ditzake: ikastetxeetako hezkuntza hobetzeko jarduera margena du, eta hartutako erabakien erantzukide sentitu daiteke... Eta kudeaketarako autonomia horrek bat etorri beharko du hartutako ebaluazio neurriekin.

Patricio de Blas Zabaletak bere hitzaldian agertu du Estatuko Eskola Kontseiluak Ministerioari hainbeste proposamen egiten zizkiola, ezen proposamen bat bera ere ez zela erantzuten...

Bai, egia da. Urtero Espainiako hezkuntza egoera diagnostikatzen duen txostena prestatzen dugu, eta 25 proposamen gomendatzen ditugu; baina proposamen horiek hainbat atal izaten dituzte ezen 100 proposamen dira, azken finean. Hori dela eta, ohartu gara proposamen horietako aspektu garrantzitsuenetan oinarrituz gero, eraginkorragoak izango garela.

Zeintzuk dira Kontseiluaren proposamen nagusiak?

Hasteko, 0-3 arteko zikloa. Eskaera guztiari erantzun behar dio, kalitatekoa izan behar da eta hezkuntza bokazioa izan behar du, argi eta garbi. Badakigu gizarte egoera ahulean dauden familietako ahurren eskola porrota ziurra dela, baldin eta eskolatze goiztiarra eta kalitatekoa jasotzen ez badute. Ahur hezkuntza zaindu beharreko eskola aldia da, etorkizunean emaitza onak lortze aldera.

Bigarrenik, garaia baino lehenago uztea eskola. Espainian, ikasketak arrakastaz amaitzen ez badira, 12 edo 13 eskola urteek ez dute ezertarako balio.

“Gizarte egoera ahuleko familietako ahurrek eskolatze goiztiarra eta kalitatekoa behar dute”

Ikasle ez tituludunek eskuratutako oinarritzko gaitasunak egiazta daitezela proposatzen dugu; hala, beren ikasketekin jarraitu ahal izango dute eta.

Hirugarrenik, irakasleen hasierako prestakuntza.

Eta, laugarrenik, hezkuntzan egindako inbertsioa. Inbertsio atalase jakin baten azpitik, hezkuntza sistemek ez dituzte emaitza onak lortzen. Espainian, inbertsioa Barne Produktu Gordinaren % 4,4ean dago eta uste dugu %7ra arte handitu behar dela.

Horiek dira hezkuntza ministro berriak planteatu dituen erronkak, ezta?

Bai, hala da.

Zer iruditzen zaizu Mercedes Cabrerak Ángel Gabilondo ordezkatzea?

Cabrerak 2006. urtean izendatu ninduen. Prestakuntza handia duen emakumea da eta hezkuntzarekin oso sentsibilizatuta dago. Zuzenean aritu naiz lanean berarekin, eta beti jaso dut bere laguntza. Uste dut Gabilondo indarrez eta ideia garbi batekin datorrela, hezkuntzari lehentasuna ematea, hain zuzen; hori dela eta, emaitza ona lortzea espero dut. Baina oraindik ez dugu elkarrekin lan egin.

Nola eragiten du krisi ekonomikoak hezkuntzan?

Hezkuntzak gizartearen motorra izan behar du. Politika ekonomiko eta sozial onena da. Botere publikoek badakite hezkuntzan inbertitzea dela etorkizuna. Lehenago edo beranduago krisia amaituko da, eta hezkuntzaren aldeko apustu argia egin duten komunitateetako gazteek prestakuntza eta aukera onenak izango dituzte.

Hainbat autonomia erkidegoetan hezkuntza ezberdinduko zentro batzuei kontzertuak kendu zaizkie. Zein da gai horrekiko duzun jarrera?

Uste dut hezkuntza mistoa gizarte demokratikoaren balioa dela. Ikastetxeak ezaguera igorleak besterik ez dira; balio demokratikoak ere igortzen dituzte. Badakit hezkuntza ezberdindua osatzea bermatzen duten epaiak daudela, eta errespetatzen ditut; baina uste dut dibertsitatean bizikidetzeari balore bat dela.

Zein iritzi duzu hiritarrentzako hezkuntzaren kontzientzia eragozpenari eusten dioten gurasoei buruz?

Hiritarrentzako Hezkuntzaren kontra Hezkuntzaren Lege Organikoaren dekretuei errekurtoa jartzera epaimahaie-tara jo zuten gurasoak errespetatu nituen. Baina Auzitegi

Goreneko epaia dago kontzientzia eragozpenaren aurka, eta epai hori bete beharra dago. Gainera, guztiok ahaleginak egin behar ditugu Espainiako hezkuntza hobetze aldera.

DBH eta Batxilergoa malgutzeko neurriak hartu al daitezke?

Estatuko Eskola Kontseiluak, iazko txostenean eskatu zuen Batxilergoan pasabide edo zubi

maila bat egon zedila, unibertsitatean bezala, bestelako erritmoa daramaten ikasleek ikasketak bertan behera ez ditzaten utzi. Hala ere, Auzitegi Gorenaren epaiak ezartzen du Hezkuntzaren Lege Organikoak ez duela sistema hori jasotzen, baina bete egin behar dela. Edonola ere, uste dut gai horren inguruan erabakiak hartu behar direla; izan ere, batxilergoko lehenengo mailan eskola uzte ugari ematen dira.

Pedro Rascón

CEAParen burua



“Zenbat eta handiago izan gurasoen inplikazioa heziketan, Orduan eta gehiago ikasten dute seme-alabek”.

María Jiménez Ramos

Seme-alaben heziketan gurasoen inplikazioa da Espainiako Ikasleen Guraso Elkartearen Konfederazioak (CEAPA) aurre egin beharreko zeregin nagusietako bat. Konfederazioaren presidentek, Pedro Rascón, gaur egungo gaiak aipatzeaz gain, besteak beste, zentro berezituaren finantzazioa edo hiru urtekoen Eskolaurrea, gurasoen parte hartzea ikastetxeetan defendatu egin zuen “harrizko gonbidatu izan ez daitezen”.

Gurasoen inplikazio eza da CEAPAk duen oztopo nagusietako bat. Zure ustez, zein da parte hartze murriz horren arrazoiak?

Erantzun zaileko galdera, izan ere, eskola kontseiluen eskumenak murriztu egin dira azken bi legeetan, gurasoak harrizko gonbidatu gisa sentiarazi eta, azkenean, interesa galduz. Argi dagoenez, instituzio batean laguntzen dutenek ekarpenaren bat egiten dutela sentitu nahi dute. Neronek batzuetan zera pentsatu dut: “zertarako nago hemen, egiten dudana egiten dudala, gurasoek defenditutako proposamena aterako ez bada?”.

Dena dela, gurasoen inplikazioa desberdina da ikasmaita guztietan, horrela al da?

Parte hartzea seme-alaben adinaren arabera da. Lehen eskola etapetan, Haur eta Lehen milako hezkuntzan, handiago da; Bigarren mailako hezkuntzan, ordea, askoz txikiagoa eta Batxilergoan agertu ere ez dira egiten. Badi-rudi semearen edo alabaren ahulaldian babesteko beharra dutela, alabaina, suspertu bezain laster, bestelako jarrerara hartzen dute. Kontua da gurasoak seme-alaben ikastetxera joateko beharraz konbentzitu behar ditugula, heziketa eta sistemarako garrantzi handikoa baita. Nazioarteko azterlanek erakutsitakoaren arabera, gurasoek inplikatz gero, seme-alabek gehiago ikasten dute. Mekanismo arraroren bat dela medio, horrela gertatzen da.

Nola sustatu daiteke aita-amen inplikazioa?

Parte hartzen lagundu beharra dago. Batzuetan, zentroan sartzean arrotzat hartzen gaituzte, irakasleen jokabidea aldatu nahi edo behar ez den lekuan muturra sartuko dugulakoan. Eta guzti horrekin eten beharra dago, nekez bada ere. Herrialde jakin batzuetan, esate baterako, ondo ikusten da gurasoak ikasgelan egotea klasean ematen ari diren bitartea, hemen, berriz, praktika hori zentzugabeke-riatzat hartuko litzateke. Egiazkoa da ere, gurasoek behar-beharrezko izateko sentazioa dugula, eta nahi duguna lortzeko gai garela, ukatzen badigute ere. Eta ideia horrekin ere eten beharra dago.

Administrazioak aktiboki jokatu behar al du familien partaidetza defizita murrizteko?

Administrazioa da partaidetza sustatu behar duena, hala ere, ez du nahikoa egiten. Askotan diru ezaren argudioa erabiltzen da. Alabaina, ekintzetara pasatzeko eta legeak dioskuna nahikoa ez dela esateko unea dugu, hortaz, prestatuntza ekintzak beharrezko dira, gurasoek modu egokian parte har dezaten. Baldin eta horrelakorik ez badugu, hasieran parte hartzea kostatzen bazaigu, oztopo guztiak ikusten baditugu, eta horrez gain, gure seme-alabak hazten badira, azkenean, gurasoak ez dira arduratzen.

CEAPAk gaur egun mahai gainean daude heziketa arloko zenbait gairi buruzko jarrera argia eta jokabide aktiboa agertu ditu, adibidez, zentro berezituaren finantzazioaren inguruan.

CEAPA da, ikasleen sindikatuarekin, berrikuntza pedagogikorako mugimenduarekin eta irakasleen sindikatu nagusi-ekin batera, estatu mailan sinatutako manifestuaren sus-tatzaile, zeinetan praktika mota horien salaketa egiten dugun, gure ustez, diskriminatzaile delako, eta Hezkuntza-

ren Legearen eta Konstituzioaren espiritua urratzen duelako. Ez dugu inoiz eskatu zentro berezituak ixtea, alabaina, diru publikoz finantzatuak izatearen aurka gaude.

Hala eta guztiz ere, mota horretako ikastetxeen finantzazioa mantentze aldera, zentroa aukeratzeko gurasoek duten askatasuna aipatzen dute sektore batzuek.

Zentro diskriminatzaile izan beharrean, berezituak direneko eufemismoetatik haratago, CEAPA elkartearen defendatzen dugu zentro itunduak ezin izan daitezkeela, eta Administrazioak mota horretako zein beste edozein zentroren finantzazioari uko egiteko eskubidea duela. Administrazioak, halaber, eskolatu beharreko ikasleen plaza guztien horniketa ziurtatu beharra dauka, dena dela, legeak ez du inolaz ere jasotzen %50 pribatuak eta %50 publikoak izan behar direnik. CEAPAn zentro publikoetan eskolatzeko diogu, eta zentro pribatuak, beti bezala, existitu behar direla, baina diru publikoz finantzatuak ez izatea, Nafarroan gertatzen den bezalaxe.

Eskola ordutegia da eztabaidagai dagoen beste kontu bat. Zein iritzi du CEAPAk horren inguruan?

Arazoa da hiru ordutegi desberdinak daudela: zentroa irekita dagoen bitartekoa, horretan Iruñeko Udala eredu garri da, bere menpeko zentro guztiak goizeko zortziak laurden gutxiagotik gaueko hamar arte irekita baitaude; administrazio eta zerbitzu etako langileen eta irakasleen lan ordutegia; eta eskola orduak. Kontua da, hortaz, dena bateragarri izatea. Baina, arrazoi bitxia dela kausa, eskola

orduak eta irakasleen lan ordutegia bat etorri behar dira, eta hortxe sortzen da polemika. Eta ordutegi horren barnean ez dagoen guztia gurasoek bete behar dugu, zentroak eskuak garbitzen baititu. Eta horretan gure erabaketeo desadostasuna adierazten dugu.

Ba al dago guztien interesak bateratzeko inolako aukerarik?

Ikasleek ikasteko zein unetan ateratzen duten etekinik handiena seriozki aztertu beharra dago. Batzuetan, Finlandia bezalako herrialdeak aipatzen ditugu, arratsaldeko laurak arteko lanaldi jarraitua dutelako. Alabaina, ez dugu aintzat hartzen, gure kasuan, umeek ikastetxetik irtetakoan, etxeko lanak, eskolaz kanpoko ekintzak eta abarrak dituztenik. Dugun funtzionatzeko modutik abiatutik, uste dugu lanaldi zatitua hobea dela. Hala eta guztiz ere, agian eskola orduen aldiak aztertu beharra dago, egutegi kanonikoa alde batera utzi eta umeentzat mesedegarriago den banaketa bilatu, ukiturikoak baitira eta eztabaida hauetan aiantzi ohi ditugunak.

Ezin ahantz ditzakegu eskolaurreko mailako hiru urteko haurrak, koskorrenak direnak, hain zuzen ere.

Gai horretan, egiazkoa da Iruñea erreferente izan dela nazio mailan: zentroak beti haur eskolak izan dira eta beste batzuek, haurtzaindegia izanik, izan ez dituzten abantailak eduki dituzte. Estatuko Lege Organikoa indarrean jarritakoan, haurtzaindegiek ez dute zentzurik. Orain eskumen guztiak haur eskoletara transmititu beharra dago. Bestalde, etapa horretako eskola plazaren kostua hurrengo etapetakoa baino askoz garestiagoa da, eta horrela diruaren eta krisiaren gaiarekin egin dugu topo. CEAPAk ez du errebindikatzen etapa horren nahitaezotasuna, bai, ordea, gainerako heziketa etapetan bezala, kalitatezko eskaintza publikoa bermatua izatea, bai eta, heziketa sailen menpe egotea ere.

Roberto Escudero

Sergio Fajardo Medellineko (Kolonbia) alkate ohiak ezin izan zuen Nafarroako Eskola Kontseiluaren X jardunardira bertaratu. Hala bere, bideo bat bidali zuen, non “Medellín plana, heziera onena duena” azaltzen zuen.

“Gizarte mailan atzeratuta bizi diren pertsona guztiei arreta eman behar diegu, berdintasuneko euskarria eratzeko eta aukera berriak zabaltzeko”, esan zuen. Erronka, hortaz, hiritar guztiei “kalitate handiko hezikuntza” ematea da.

Helburu horrekin, Medellineko alkatetzak zientziaren parke interaktiboa eta hamaika ludoteka eraiki

Sergio Fajardo

Medellineko alkate ohi (Kolonbia)



“Medellin, heziera onena duena”

ditu. Era berean, bost liburutegi parke eraikitze fasean daude, “gure burua aurkitzeko parkea eta eraldatzeko liburutegia”. Fajardok parkearen ideia nabarmendu zuen; izan ere, “gure burua aurkitu behar dugu”.

Bestetik, abian jarri da eskolaurrekoei zuzendutako programa, eremu hauek barne hartzen dituelarik: osasuna, elikatura, birsorkuntza eta hezkuntza. “Hasiera ona” izeneko programa horren helburua da haur batzuk ez deza-

tela beren eskola garaia desabantaila egoeran hasi.

Medellinako alkateak bultzatutako mikrokredito sarea aukera onak ematen ari da. “Pertsonarik umilenak pedagogia proiektu ekintzailea igaro dezake”, baietsi zuen Fajardok.

Amaitu zuen esanez, “Medellin, heziera onena duen planari esker: pertsona guztientzako aberastasuna sortzen ari garela”.

Teresa Úcar Echagüe

Nafarroako Eskola Kontseiluko burua



María Jiménez. Roberto Escudero

Zein da X. Jardunaldiaren balantzeta?

Oso positiboa. Hitzaldiak eta jarduketak oso interesgarriak izan dira, ondorioak barne. Horrez gain, Iruñea eta Korellako Arte Eskoletako eta Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionaleko ikasleen parte-hartzea nabarmendu behar da. Esku-hartzeen kalitatea dela medio, azken hamarkadetan gazteriaren prestakuntza modu nabarian hobetu dela antzeman dezakegu.

Patricio de Blasen hitzaldiaren ostean, Jardunaldiko entzule batek esan zuen Nafarroako Eskola Kontseiluan akordioak erdiestea “utopikoa” zela. Zein da zure iritzia gai horren inguruan?

Kontseiluan, gai gehienetan ados gaudela esan dezaket. Ohi bezala, desadostasuna hamabost edo hogeitaz biltzen dituen arau-proiektuaren atal batean edo bitan gerta daiteke, eta, horrenbestez, kontraesanaren portzentajea gutxienezkoa da. Hala ere, norbaitek beti alderdi negatiboa, gatazka, areagotzen du, eta nire ustez horrek kalte handia eragiten du hezkuntza-sistemaren gain. Hala-ber, horrek eztabaida eta liskarra eragiten du, benetako egoera inola ere islatzen ez duena. Jakina, kontraesanezko gaiak daude, baina gai horietan ere akordioa utopikoa izan arren, ez da ezinezkoa.

Consejo Escolar de Navarra/ Nafarroako Eskola Kontseilua
<http://irati.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra>

Ez ziren hurbildu guraso asko Planetariora. Zure ustez, nola bultzatu daiteke gurasoen parte-hartzea?

Beharbada Jardunaldiaren formatua irakasleei edo orokorrean hezkuntza-arloko teknikariei egokituta dago, familiekin alderatuta.

Azken urteetan, gurasoek seme-alaben hezkuntzari buruz duten interesa eta informazioa asko areagotu da, baina interes hori ez da islatzen zentroko eskola kontseilueta duten parte-hartzeari dagokionez. Gurasoak gero eta maizago zentrorat bertaratzen dira euren seme-alabei, ikasgelari edo arreta ematen dieten irakasleei buruz zehatz-mehatz hitz egin behar dutenean, baina euren iritziz, “zentroaren antolakuntza” gaiaren inguruan erabakiak hartzeko unean, horien parte-hartzea ez da baliagarria. Bada, Patricio de Blasek adierazitakoaren arioren, zerbitzuaren “bezero” gisa sortutako harremana gehitu da, eta “laguntzaileak” bezala dagoena jaitsi egin da.

Alderdi guztien parte-hartzea eta lankidetzat, eta bereziki, gurasoena, kalitatezko eskola lortzeko berrir formulatutako beharrek alderdietako bat da; beharrezkoa da, hain zuzen, adostasuna eta eraginkortasuna lortzeko ezinbesteko baldintza, eta hori ahalbidetzeko beharrezkoa den guztia

egin behar da.

Kontseilua jadanik XI. Jardunaldian pentsatzen ari da? Gaia aurreratu daiteke?

Bai, gaia “Kirol Irakaskuntzak” izango da. Kirola, onura askoren funtsa, okupazioa eta enplegua sorrarazten duen lanbide-jarduera da. Nola prestatzen dira gure gazteak lanbide-jarduera hori garatu ahal izateko?

Eskola Kontseiluak espezialitate ezberdineko eliteko kirolarien, epaileen eta kirol-teknikarien prestakuntza-prozesua nolakoa den aztertu nahi du. Horrez gain, Nafarroako irakaskuntza horien eskaintza zein den aztertu nahi du, bai eta araubide orokorreko irakaskuntzekin bat egiteko modua ere.

Gainera, hiru ikuspegi jorratuko ditugu: araubide bereziko kirol-irakaskuntzak (Kirolen Goren Kontseiluak onetsitako kirol-espezialitateen irakaskuntzak), kirolaren irakaskuntza derrigorrezko irakaskuntzaren adinetan, eta kirolaren irakaskuntza bizitzan zehar.

Kirolaren irakaskuntzak, orobat, Kontseiluaren hurrengo urteko lan-gaia izango da.



Tú eliges, tú decides: *Eskola umeen lansaioa Nafarroan*

Nafarroako Eskola Kontseiluak egin duen azterlana eskola umeen denbora-okupazioari buruzko datu objektiboetan oinarrituta

Proiektuaren zk.: 16685



Patricio de Blas

Gizartearen parte hartzea hezkuntzan

(Familiek, ikasleek eta gurasoek eskolan duten parte hartzearen gaineko azterketa)

Asmoen adierazpena

Niretzat ohorea eta ardura da toki honetan egon eta nire herrikideekin eztabaidatu ahal izatea hezkuntzan parte hartzearen gainean. Izan ere, hezkuntzan parte hartzeak erabat ukitzen ditu gure bizitza profesionalean garrantzitsuak diren arazoak, jokaerak eta ilusioak eta baita ere gure familiendako ezinbestekoak diren interesak. Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakariari eskerrak eman nahi dizkiot eskaini didan aukeragatik. Nire itxaropena da hemen hausnarketa gisa egindako ekarpena bailagarria izan dadila zuendako.

Nire ikuspegia irakaslearena da. Irakaslea, eskola kontseiluetan nolabaiteko esperientzia duena, sinetsita dagoena parte hartzea ez dela soilik (eta ausartuko naiz esatera) ezta nagusiki ere, funtsezko eskubide bat erabiltzea, baizik eta baita ere hezkuntza hobetzeko eta gure garaiotako eskakizun konplexuetara egokitze tresna eraginkorra ere. Familiak, ikasleak eta irakasleak, ikastetxeko langileak eta udaleko ordezkariak inplikatzeko dituen halako jardura batek, aukera gehiago izanen ditu helburuak erdiesteko eraginpeko guztiek ezagutzen badute ongi zein esparrutan kokatzen diren, zein paper egokitu zaion bakoitzari eta ezagutzen badituzte denen itxaropenak eta beldurrak zein diren.

Hausnarketa hau une delikatu batean dator. Uztailen 24 urte beteko ditu indarrean Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoak (LODEk) edo Lege horretatik irauten duenak, eta ez dirudi zilarrezko ezteiak ospatzeko suziriak botatzeko moduan gaudenik. Halako uzkurdura sumatzen da lege hark sortu zituen parte hartze organoen funtzionamenduari dagokionez. Halako sententzia bat, kontseiluak eskola komunitatearendako topaleku izan beharrean, beste foro batzuetan harturiko erabakiak formalki onesten dituzten organismo burokratizatuak ote diren edo. Halako zerbait gertatzen da baita ere eremu zabalago batean: Estatuko Eskola Kontseiluaren gainean ari naiz. Azken aldiotako lehendakariak eginahalak egin arren, eta errespetua eta baita amultsutasuna bera arau badira ere, elkarriketaren eta kontsentsuaren kultura ez da ohikoa, batez ere xedapen garrantzitsuenen berri emateko orduan.

Eta hau esaten dut, uste dudalako azterketa errealista eta ez utopiko bat egiten bada parte hartze organoen, organo horien araugintza eta funtzionamendu eskasiaren eta sektoreek beraien eskubidea erabiltzeko dituzten zailtasunen gainean, oro har, eta baita kasu zehatz bakoitzean ere, erraztu egingen duela helburu errealistak hartzea eta kontseiluen praktika epe laburrean hobetuko duten neurriak hartzea.

1. Hezkuntzan parte hartzea Konstituzioak onarturiko funtsezko eskubidea da.

Garrantzitsua iruditzen zait gogoratzea non sortzen den, zein zentzu duen eta zein balio duen parte hartzeko eskubidea. Ziurrenik ez dut deus berririk esanen zuen

gisako entzuleria baten aurrean, parte hartzea bideraturiko eginahaletan dihardutenen aurrean. Nolanahi ere, komeni da gogoratzea. Batzuetan, ematen du eskubide hau ezkerreko gobernuen kapritxo delako, eta kasurik onenean, botere publikoek herritarrei egiten dieten doako kontzesioa, zerbait anekdotikoa eta osagarria. Eta ez, Espainiako Konstituzioa eta Konstituzioak eratzen duen Zuzenbide Estatu sozial eta demokratikoa bera egituratzen duen printzipioetako bat da (1.1 art.).

Hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioko 9.2 artikulua zera ezartzen du: “Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztupoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; *eta herritar guztien parte-hartzea erraztea bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere*”. Ana Leturia Navarrok *El derecho a la participación educativa* liburuan esan duen gisan (bide batez, biziki gomendatzen diot liburua hona ekarri gaituen gaian interesa duen orori), artikulua honetatik ondorioztatzen da ordenamendu guztia iradokitzen duen printzipio juridiko konstituzional bat. Agindu hori botere publikoei bideratua dago, norabide jakin batean lan egin dezaten. Agindu horretan dago arau juridikoen jatorria, eta onarpen hori Atariko Tituluan dagoenez berriazko pisua du sistema konstituzional osoaren egituraketan. Horrek esan nahi du, hain zuzen ere, estatu demokratiko eta sozial batean, herritarren parte hartzea ezin daitekeela mugatu parte hartze soilik politiko-elektoralera; herritarren parte hartzea eremu sozial, kultural eta ekonomikora zabaltzea ere eskatzen du. Eremu horietan, eta hezkun-

tza eremu horietakoa da, Estatuak ezin du gizartea alde batera utzi erabakiak hartzeko orduan.

Hezkuntza parte hartzearen eremuak eta parte hartze hori bideratzeko organo kolegiatuak

Gaur dugun hezkuntza sistemaren ordenamendu juridiko-erakundeak oinarria Konstituzioan du, zehazki 27. artikuluan, eta aipaturiko artikulua garatzen duten lege organikoak ditu osagarri: Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE) eta LODE (azken hau LOEk partzialki aldatua. 27. artikulua hezkuntza parte-hartzearen eremu handiak finkatzen ditu: irakaskuntzaren programazio orokorra (27,5) eta funts publikoekin sustengaturiko ikastetxeen kontrolean eta kudeaketan esku hartzea. Ikus ditzagun xeheki.

27. artikulua 5. idatz-zatian zera agintzen du: *“Botere publikoek bermatzen dute gijabanako guztien hezkuntza-eskubidea, hezkuntzari buruzko programazio orokorraren bidez, sektore interesdun guztien parte-hartze eragingarriarekin eta ikastetxeak sortuz.”* Lehen aipaturiko lege organikoek, “irakaskuntzaren programazio orokorrean” parte hartzeko eskubidea garatu duteneak, ezarri dute eskubide hori gauzatu dadila irakaskuntza programatzeko eskumena duen botere bakoitzaren ondoan: Estatu mailako Estatu Eskola Kontseilutik hasi, autonomia erkidegoetako eskola kontseilu autonomikoetan jarraitu, eta lurraldeetako edo udaletako kontseilueta. Estatu eta autonomia mailako organoetan ordezkatu daude irakasleak, familiak, ikasleak administrazio eta zerbitzuetako langileak, patronala eta sindikatuak, hezkuntzako administrazioa, udalak, unibertsitateak..., azken finean “entzute handiko pertsona” saldo kolore-askotakoa. Parte hartzea kasu hauetan egiten da, arauak egiten zaizkien irizpenen bidez (alde aurreko kontsultateginkizuna), dagokion administrazioari egiten zaizkion proposamenen bidez eta hezkuntza sistemaren egoeraren gainean egiten diren aldiro txostenen bidez.

Espainiako Konstituzioko 27.7 artikulua, hezkuntzan parte hartzearen beste eremu handia mugatzen du: *“Irakasleek, gurasoek, eta hala denean, ikasleek ere, parte hartuko dute Administrazioak diru publikoarekin ordaindutako ikastetxe guztien kontrol eta kudeaketan, legeak ezartzen dituen mugekin”*. Kasu honetan parte hartzea organo kolegiatuaren bidez egiten da (eskola kontseilua, irakasleen klustroa), baina baita ere beste bide batzuetatik: guraso eta ikasle elkarteak, irakasleen arteko koordinazio didaktikorako organoak, ikasleen ordezkariek, batzarrak, etab. Horrek guztiak ez du esan nahi hezkuntza erkidegoko kideek norbanako gisa 27. artikulua aitortzen dien funtsezko eskubidea bala ezin dezaketenen organo kolegiatuaren eskumenekoak ez diren kontuetan, Auzitegi Konstituzionalak 5/1981 sententzian esan zuen gisan.

Hala ere, Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua esparru zabala uzten dio legegileari parte hartze eskubidea nola garatu behar den ezartzeko. Gauza asko artikulua hura garatuko zuten lege organikoetan definitzeko zeuden. Adibidez; noraino iristen da hezkuntzako programazio orokorra? Eskolako postuen plangintzara mugatzen da, edo egitura eta funtsezko osagaiak ere definitzen ditu? Zein irismen maila du “esku-hartze” aditzak: elkarrekin erabakiak hartzeak, kontsultatua izateak? Funts publikoak ordainduriko ikastetxe baten gainean ari garenean, zeri buruz ari gara, erabat finantzaturiko ikastetxeen gainean, edo diru-laguntza partzial bat dutenen gainean? Definizio gabezia horrek azaltzen ditu legegintzan izan diren gorabeherak, ikastetxeen estatutuaren Lege Organikorekin (LOECE; 1980) hasi eta Hezkuntzaren gaineko Lege Organikoraino (LOE, 2006), bitartean LODE (1985), LOGSE (1990), eta LOPEG (1995) izan zirelarik. Esan ohi da LODE izan zela parte hartze eskubidearen interpretazio zabala eta oparoena egin zuena, eta LOE (2002) berriz murrizten egin zuena. Indarrean dagoen LOE LOE ezarritako mugetako batzuk errespetatu egin ditu. Joan-etorri horretan, Auzitegi Konstituzionalean maiz izan diren helegiteek balio izan dute kasu batzuetan konstituzionaltasuna berresteko

eta beste batzuetan ezeztatzeko.

Egin eta desegin hori ordea, ikusiko dugun gisan, ez da izan ordainik gabekoa. Beste ondorio batzuen artean kontzeptuak berak esan nahi duenaren gaineko nahasmena elikatu du. Hezkuntza jardura konplexua da; bertan esku hartzen duten hainbat kolektibori eragiten die, eta parte hartzea ez daiteke alde bakarrekoa izan, enpresa batean bezala. Familia interesatuenak eta ikasle aktiboenak, eta litekeena da irakasleendako ere hala izatea beraien eskumenei dagokienez, parte hartzeak erabakietan ere parte hartzea esan nahi du, erabaki botereetan parte izatea. Irakasleendako, gainontzeko eragilean parte hartzeari dagokionez, eta ikasle eta gurasoen sektore zabaleko, parte hartzeak soilik esan nahi du kontsultatua izatea eta irakasleekin eta ikastetxeekin lankidetzan aritzea. Horiek dira, kasuak izan ditzakeen nabardura guztiak gorabehera, aipatu berri ditudan lege aldaketak ikustarazten dituzten posizio politikoak: eskola kontseilua eta klustroa gobernu organo kolegiatu gisa edo kontrolean parte hartzeko organo gisa, nahiz era horri bukaerako ohar gisa erantsi, Konstituzioa formalki errespetatzeko, eta kudeaketa. Arazoa bereziki konplexua da ikastetxe pribatu itunduetan.

Izan ere, aldean interpretazioek eta lege aldaketek elkar elikatzen dute eta polemika ikastetxeetara luzatzen dute. Non dago egia, hots, Konstituzioaren interpretazio zuzena? Ana Leturiak, lehen aipaturiko liburuan ondokoa kontuan hartzeko eskatzen dio legegileari: *“tendrá que tener en cuenta, como límite por abajo, el respeto al contenido esencial del derecho reconocido en el artículo 27.7 CE; como límite por arriba o máximo deberá respetar el contenido esencial de los derechos de los restantes miembros de la comunidad escolar, en especial el derecho del titular del centro privado a la creación de centros docentes”*. Eta parte hartzearen gaiarekin interesa dugun “eragileek” ongi egiten genuke aipaturiko irizpidea aintzat hartuko bagenu. Ez da ahantzi behar lehenago aipatu dudan zerbait: funtsezko eskubidea

da, eta Espainiako Konstituzioko 53.2 artikulua aipatzen duen gisan, zeinahi herritarrek eskatu ahal izanen du eskubide horren tutoretza ohiko auzitegien aurrean, lehentasun eta sumariotasun printzipioen arabera.

Partehartzea, hezkuntzaren kalitaterako bitarteko eta helburu.

Eskubidea izateaz gain, hezkuntzan parte hartzea kalitatea hobetzeko bitarteko bat ere bada, eta helburua ere, parte hartzea bera baita herritar aktiboagoak eta kontzienteagoak erdiesteko entrenamendurik onena. Eskola kontseiluen funtzionamenduaren ikerketa egin duten askok aipatu dute seme-alaben ikastetxean familiek aktiboki parte hartzeak onurak ekartzen dituela. Ikastetxeetako dinamismo eta aldaketa faktorea dira (San Fabian Maroto), Gurasoen inplikazioak berarekin dakar arlo kognitiboen (irakurmena eta idazmena) errendimendua hobetzea eta eskolara erregularri joatea. Irakasleek ikaslearen testuinguru sozio-familiarraren gainean duten ezagutza hobetzen da, eta hainbat datu ematen dizkie, eskolako eta familiako kulturaren arteko distantzia murrizteko, batez ere ikasle immigranteen kasuan. Azkenik, berebiziko baliabidea da hezkuntza komunitatea moralki eta organikoki erkidego gisa eratu dadin.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako eguneroko bizitza ikusteko ariketa birtual bat egitera gonbidatzen zaituztet. Nik uste argi ikusiko dela gurasoen esku hartzeak nola dinamizatzen duen eskola bizitza. X ikaslearen aitak edo amak A tutorearekin elkarriketa egiten duenean bere semearen gainean hitz egiteko, nahi gabe ere, ondoko jardura sekuentzia eragiten du, harri bat ur putzura botatzen duenean bezala: A tutoreak, elkarriketari edukia eman nahi dionez, X ikaslearen azken notak berrikusten ditu, informazioa eguneratzeko -informazio hori, agidanez, honez kero ezaguna dute gurasoek-. Ohar bat igortzen du, edo kafe orduan B, C eta D arloetako irakasleei eskatzen die (arlo horietan X motel dabil), X-ek aipaturiko arloetan izan dituen aurrerapenen edo zailtasunen gaineko datuak izateko. B

irakasleak agian ez zuen X ikaslea ezagutzen, gehiago erreparatzen dio, klaseko koadernoak eskatzen dio eta dituen datuak berrikusten ditu, A-ri zentzuzko zerbait esan ahal izateko (ez baditu informazio elementu berriak, nabarmen geldituko da A lankidearen eta bere buruaren aurrean). Bitartean, tutoreak X-ren hutsak berrikusiko ditu ikasketa buruarekin, planteatuko du familiaren zein informazio behar duen, elkarriketaren plana eraginkortasun handiagoz eta osoz gauzatzeko. Informazio hori X-ren gurasoei eskatuko die. Elkarriketa bukatzean, bere lankideei emanen dizkie intereseko datuak, eta ondoko ebaluazioa iristen denean denek ezagutuko dute hobeki X. Nabarmena da taldeko familiek X-ren gurasoen gauza bera egiten badute, talde horretako tutoreak eta irakasleek hobeki eta gehiago ezagutuko dituztela beraien ikasleak eta ebaluazio tresnak eta ikasleekiko ardura hobetuko direla. Familiek ez badute interesik erakusten, estimulu hori desagertu egiten da eta deusek ere ez du aldatuko eskolako errutina.

Ariketa errepikatu daiteke ikastetxeeko eskola kontseiluaren saioa imajinatuz. Bertan gurasoen ordezkariak azalpen zabalagoak eskatuko dituzte ikasturte bukatzeak memoriari dauden eskolako emaitzen gainean. Zeri zor zaio, irakasgai berdinean, halako emaitza aldea izatea ikasturte bereko taldeen artean? Galdera, itxuraz, inozoa da, eta azaleraz dezake eta kolokan jar ditzake argi ez dauden egoerak: departamentuen programazioan diren gabeziak, irakasle jakin baten jokaera basak, zailtasunak ikaslearen taldekatzea... hasieran esan dudana gisan, prozesu konplexua da. Hainbat eragilek hartzen dute parte. Esaterako, denek ezagutu behar dute zein helburu dugun eta helburu hori nolakoa den, zeintzuk diren bidean dauden zailtasunak eta zeintzuk diren bakoitzak egin behar dituen eginahalak zailtasun horiek gainditzeko. Hori denak jakiteak, aldean lanari zentzu handiagoa ematen dio, beraien eraginkortasuna areagotzen du, eta halabeharrez eta ondorioz, prozesu guztia hobetzen da.

Oraindik ere simulazio ariketa bat gehiago egiten ahal dugu. Ariketa horren eragina, aurrekoena ez bezala, egiaztatzeke dago. Estatuko Eskola Kontseiluan hezkuntza sistemak 2007-2008 ikasturtean duen egoeraren gaineko txostena lantzen ari gara. Ohartu gara, beste urte batzuetan bezala, "hezkuntza administrazioei" Hezkuntzan diren hamaika arazoen gainean hamarnaka proposamen egiteak ez dituela administrazio horiek konprometitzen, eta ez dituela sisteman hobekuntza haute-mangarriak eragiten ondoko ikasturtean zehar. Horregatik, Batzorde Iraunkorra planteatzen ari da aho bateko adostasun batera iristea lauzpabost arazo nagusiei dagokienez, gero Hezkuntzako ministroari proposatzeko lehentasunezko akordio gisa, eta heldu den ikasturtean akordio horren aplikazioaren eta garapenaren gaineko txostenak eskatzea. Aurreko kasuetan balio izan du, putzura botatako harriaren gisara, urak mugitzeko eta erreazio positiboren bat eragiteko. Balioko du oraingoan ere?

Parte hartzea, gainera, helburu bat ere bada. Eskola bizitza, nahi eta nahi ez, entrenamendua da herritartasunerako. Demokraziaren oinarria da herritarrek askatasunez finkaturiko bizikidetzara arau batzuk onartzea. Arau horiek nahitaezko markoa dira, eta denendako askatasun eta segurtasun berme dira. Eta hori eskolatik bertatik hasi daiteke hautematen. Eskolan, haurrak eta nerabeak beraien berdinekin bizi dira, arau batzuen menpe. Arau horiek ez betetzeak gainerakoak kaltetzen ditu eta horregatik, zigorra dakar. Horrela, arau horiek nahitaez adostu eta onartu beharko dituzte gero betetzera beharturik daudenek. Ikaskuntzarekin hasi beharko genuke. Irakasleak jakin behar du zein kalifikazio irizpideren arabera balioetsiko duten, eta erreklamatzeko zein eskubide duen. Jardura hauetan hezten da justiziaren zentzua. Eta ulertu behar da zein den diziplinaren zentzua eta arau hausteen ondorioak zeintzuk diren. Eta hori gertatzeko, merezi du denbora, pazientzia eta eginahalak inbertitzea parte hartzean. Eskolako bizitzak susta ditzake gainerakoendako errespetu azturak, bizikidetzarako erantzukizun eta kooperazio azturak, edo kontrara, jarrera

otzanak gara ditzake (otzantasun itxurazkoa edo benetakoa), elkartasunaren aurkakako jarrerak eta agresibitate jarrerak gara ditzake, edota gizartearekiko erresumina. Ziurrenik, emaitza bat edo bestea izatearen gakoa parte hartzean dago. Horregatik ez da ulertzen “eraginkortasunaren” izenean nola jotzen den “denbora galtzetzat” parte hartzean inbertitzen den denbora.

2. Eragileen parte hartzea ikastetxeetan

Eskola hiru sektoreren topaleku da – irakasleak, ikasleak eta familiak-. Sektore horiek, parte hartzeari dagokionez, motibazio, zailtasun eta itxaropen desberdinak dituzte. Ondorioz, jakina, parte hartze mailak desberdinak dira. Merez du gelditzeak motibazio desberdintasun horri erreparatzeko, ezinbesteko erreferentzia puntua delako gainontzekoen jardura balioesteko eta topaguneak aurkitzeko batera ditugun interesen gainean. Mariano Fernández Enguita soziologoa aspalditik dabil eskolan izaten diren portaerak aztertzen. horrela deskribatzen ditu aldean motibazioak.



Irakasleek parte hartzean laneko interesak

(laneko baldintzak, ordutegia, ordainsaria) eta interes profesionalak (autonomia lanean administrazioarekiko eta “ezjakinen” –gurasoak- esku hartzearekiko beraien lan profesionalen). Familiek beraien eskubide “patriarkalen” (seme-alaben hezkuntza, ongizatea eta autoestimua zaintzea) edota “kontsumitzaile edo bezero” eskubideen (seme-alabek ahalik eta zerbitzurik onena eskura dezatela beraiek, zergen edo kuoten bidez ordaintzen dutenaren truke) alde egiten dute. Ikasleek (edo gurasoek beraien partez) eskubide pasiboak defendatzen dituzte (errespetuz tratatuak izatea, libreki parte hartzea eragiten dieten erabakietan...). Segituan aipatuko dudanez, eskubide hauek ezinbestean kontrajarririk direla uler dezakegu, edo kontrara, bateragarriak direla uler dezakegu, baldin eta bateratze puntuak bilatzen badira, eta ondorioz, desadostasunak erlatibizatzen badira. Ikus dezagun:

Familiak eskolan. Axolagabetasuna, desilusia, ezintasuna?

Familien parte hartze datuak larriak dira, eta areago, okerrera doaz. Ñabardura garrantzitsuak daude, seme-alabaren eskola mailaren arabera: familien asebetetasuna behera doa haurrak hazi ahala. Familiek ikusten dute erakundearen interesek bila-kaera bat bizitzen dutela: hasierako mailetan lehentasunezko ardura dute seme-alabekiko –asko dute esateko horri dagokionez-. Geroago, irakaskuntzaren edukiez eta emaitza akademikoez gehiago arduratzen dira. Gai horietan gidari lana adituari dagokio, eta beraiek gutxiago dute esateko horri dagokionez.

Datuei ekin diezaiegun. Eskola kontseiluetarako egin ziren lehen hauteskundeetan –1986-7 ikasturtea- OHOk ikastetxe publikoetako gurasoen % 46,1ek hartu zuen parte (%31,2 ikastetxe itunduen kasuan) eta %20,8 BBB-UBIn (%27,5 itunduen kasuan). Hamabost urte geroago – 2001-2 ikasturtea- parte hartzea erdira baino gehiagora murriztu zen: %21,4 zen Haur eta Lehen Hezkuntzan (%7,2 itunduan) eta %6,5 Bigarren Hezkuntzan (%7,0 itunduan). Nafarroan datuak hobexek izan ziren: %26,0 Haur eta Lehen Hezkuntzan (%16,6

itunduan) eta %7,25 Bigarren Hezkuntzan (%9,7 itunduan).

Guraso elkarteetakoa izateak, eta horietan parte hartzeak tasa positiboagoak erakusten ditu: altuagoak kidetasunari dagokionez (%60 Haur eta Lehen Hezkuntzan eta %50 Bigarren Hezkuntzan), parte hartzeari dagokionez baino (familien %21ak aktiboki egiten zuen lehen kasuan, eta %15ak bigarren kasuan). Zailagoa da balioestea hargitza garrantzitsua den beste parte hartze mota bat: familiak zein maiztasunez joaten diren seme-alaben ikastetxera. F. Gil Villak Salamancan 1992an egindako ikerketa batean datu hauek jaso zituen. Ez dira beste gune batzuetan erdietsitakoetatik oso bestelakoak: gurasoen %32,6a ez zen inoiz egon ikastetxean, eta %18,2a hirutan edo gehiagotan izan zen.

Datu hauen ondorioz, M. Fernández Enguita-k zera adierazi zuen: *“gauza gutxi alden du diru espero zenetik (edo esperantzaren horrekiko zeuden usteetatik) gurasoek ikastetxeen kudeaketan duten parte hartzea bezainbat”*... Egia esan, zaila da azaltzen. Geroago aipatuko ditudan aldagai sozialak gorabehera, komeni da erreparatzeko sistema barrutik eragiten dutenei, eta beraz, aldagarriak direnei.

Esan izan da, bai gurasoen elkarten aldeetik eta bai egin diren ikerketen aldetik, zailtasun jakin batzuk direla desertzioaren arrazoi. Batzuk objektiboak dira; lehenbizikoa, eskola kontseiluen bilkurak zein orduetan egiten diren, edo tutoreei ematen zaien ordutegia familiekin bilkurak egiteko (maiz, bateraezinak dira lan eta familia betebeharrekin). Bigarrena, familiak seme-alaben ikaskideen gurasoekin elkartzeko dituzten aukera urriak, ikastetxeko hezkuntza alderdien gaineko ikuspegiak trukatuhahal izateko, edo kontseiluan dituzten ordezkariak hitz egiteko. Ildo berean, gurasoen ordezkartitza zein txikia den irakasleen gehiengo erabatekoarekin erkatuz gero, edota bilkuretan aztertzen diren gai “profesionalen” gainean duten ezagutza falta, eta hizkera kriptikoa (IHP-PEC, UPO-PGA, IGI-CCP, PIL... siglak) eta kontzeptuak (departamentuak, dibertsifikazioa, talde banaketak...) jarraitzeko zailtasuna eta

horretaz guztiaz ezin eztabaidatu izana, beraieendako deszifra ezina den makineria baten ezagutzarekin jantzita datozen profesionalekin.

Baldintza horietan, gurasoek seme-alabek transmititzen dizkieten esperientziak erabiltzen dituzte landu beharreko gaien gainean iritzia emateko. Hori irakasleen ordezkariak beraiei seme-alabekiko interes eskusibo gisa interpretatzen dute. Dena nahasten da gehiago egiaztatzen zailak diren elementu subjektiboak gehitzen direnean: konfiantzarik eza ekintza kolektiboan, baztertuak eta alde batera utziak sentitzea, hanka sartzeko beldurra, parte hartzeak seme-alabekiko izan dezaken eragin negatiboa, edota seme-alabekiko abantailak erdiesteko asmo gisa interpretatzea bere parte hartzea.

Ziurrenik, zailtasun horiek duten disuasio indarra galduko lukete bilkuretan lantzen diren gaiak interes handikoagoak balira. Haur eta Lehen Hezkuntzan gertatzen denaren kontrara (familiek solaskide bakkarra dute horietan eta sentitzen dute seme-alaben gainean ematen dieten informazioak zentzua duela beraieendako, ikusten dituzte seme-alaben aurrerapenak eta ulertzen dute ikastetxeetan beraiei gainean kontatzen dietena), Bigarren Hezkuntzan dena da zalantza: irakasgaiak, espezialistak, ebaluazioaren kultura desberdina. Horregatik, gurasoek kontseilueta esku hartzen dute, batez ere DBH-tik aurrera, oinarritzko gaietan, gehien interesatzen zaizkienetan (eskola-ordutegia, ikastetxearen funtzionamendu orokorra aztertzea eta balioestea, eskola-errendimenduaren bilakaera, ikastetxeak sustatu beharko lituzkeen balioak...). Maiz, eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea eta finantzatzera mugatzen dira, ikastetxeko dokumentuak formalki onestera eta administrazioaren aurrean kudeaketa lanak egitera.

Aldentzearen ondorioak nabarmenak dira. Lehenbizikoa, gurasoen ordezkariak desgaitatu egiten direla gainontzekoen begietara, batez ere irakasleen begietara: “ez dira inoren ordezkari, beraiei burua baino

ez dute ordezkatzeko” esaten dute irakasleek, ikuspegi kritikoak erlatibizatzeko edo deskalkifikatzeko. Parte hartze eskasa gainera, oztopoa da ikasleen eskubideak aldarrikatzeko orduan, eta zentzu berean, ahuldu egiten du gurasoen elkarrean jardueraren maila guztietan. Eta batez ere, lehen aipatu dudak gisan, parte hartzea bitarteko bat bada hezkuntza pizteko, ez parte hartzeak edo gutxi parte hartzeak errutina eta immobilismoa laguntzen du eskolan.

Zenbait familiek, parte hartze aktiboaren bidez seme-alaben hezkuntzan zuten inplikazioa alde batera utzi eta haren ordezkari seme-alabendako egoki irizten dioten ikastetxea hautatzera mugatu dira, horrexek, bere hutsean, parte hartze arduratsu eta zainzailea ordeztu dezakeela irizita. Kontsumitzaile izaeraren baitakoak diren portaerak asimilatzeak –etiketaturiko eta ontzituraturiko produktu baten hautaketa hutsa; kontsumitzaileak ezin ditu osagaiak hautatu – bizitzako beste alderdi batzuetan ondorioak izan ditzake, kasu gurean. Ikastetxe on bat hautatzen da eta seme-alaben hezkuntza ikastetxe horren esku uzten da. Baina parte hartzerik gabe, “ikastetxearen hautaketa libre” praktikan, seme-alaben hezkuntza zaintzeko eta hezkuntzan eragiteko erantzukizuna beste inoren esku uztea da. Hori, askatasunaren eta gurasoen eskubidearen interpretazio zekena baino ez da (Gómez Llorente).

Ikaslea, edo hezkuntzako harrizko gonbidatua

Irakasleen parte hartzea kontseiluetarako hauteskundeetan hagitz handia izaten da. Familiaren ordea, hagitz baxua. Ikasleena horien artean dago; %50aren inguruan dago, hasiera-hasieratik. Hagitzez zailagoa da jakitea zein den ikasle elkarrean inplikazioa. Oro har, ikusten da ikasleei informazioa falta zaiela ikastetxeko organoen (eta baita kontseiluaren) antolamenduen, eginkizunen eta eskumenen gainean, eta motibazio eskasa dutela, agian, proposamenak egiteko aukera gutxi dituztelako, jendaurrean hitz egiteari beldurra diotelako eta baita hitz egiteak ondorioak ekar diezazkiela uste dutelako ere.

Halaber, ikastetxeko bizitzan ordezkari bidez parte hartzeak hainbat hausnarketa ekartzen ditu, eta ez da erraza horietatik ondorio esanguratsuak ateratzea. Talde guztiek dute ikaskideek hautaturiko ordezkari bat. Baina, zer ordezkari? Fernández Enguita-k Madrilgo bederatzi ikastetxetan ikerketa egin zuen, eta ondorio gisa, adierazi zuen zein desberdin hautematen den ordezkariaren papera ikasleen eta irakasleen aldetik. Irakasleendako ikasle eredu-garriak dira, ordena mantentzen laguntzen diete eta ikasgelako intendentzia errazten diete (klariona, mapak...). Ikasleendako ordea, ordezkari mota hori ordezkari “morroia” edo “koipe-emalea” da, eta ulertzen dute ordezkaria interes kolektiboak defendatzen dituen bat izan behar dela, irakasleen aurreko solaskide bat. Baina ez beti. Batzuetan, eskolako ordenak irudikatzen duenari aurre egin nahirik, beraiei artean liskargileena dena hautatzen dute kargurako, hain zuzen ere, irakasleak sekula hautatuko ez lukeena. Nolanahi ere, ordezkaria, batez ere goi mailako kurtsoetan, kargu baliagarria da irakasleei ikaskideen kexak edo iradokizunak igortzeko eta irakasleen arteko koordinazio falta osatzeko, irakasleei agenda egiten lagunduz (azterketen egutegia antolatzea, programaturiko itereak...).

Ikasleen parte hartzean bada baldintza berezi bat: adin txikikoak dira eta zainza-pean hartzen dute parte. Nolabaiteko eskizofrenia bizi dute kontseilulukeak izateko edo ordezkariak izateko hautatuak izan direnek. Goizean, irakaslearen (hots, ezagutzaren gordetzaila denaren, gizarteak irakatsi nahi dizkien balioen ordezkari denaren) autoritatearen mendeko dizipulua da. Arratsaldean –hala suertatzen denean– irakasleekin, gurasoekin, administrazioiko eta zerbitzuetako ordezkariekin eta udaleko ordezkariekin –denak ere helduak, eta gainera, autoritate gehigarriaren jabe direnak– eseriko da, haien eskubide berekin, hitza hartu eta bere iritzia emateko. Ikasle otzana horrela izaki autonomo bihurtuko da, bere kabuz epaitzeko eta balioesteko gai eta, behar bada, irakaslearen iritzia aurre egingen diona. Ezinezkoa da transmutazio hori, zaila da paper bikoitz horretan sartzea, bai ikasleen

dako, bai irakasleendako eta baita guraso-
endako ere.

Izan badelako oinarritzko (beste) kontrae-
san bat, zeinahi doktore tesik baino hobeki
adierazten dituen eskola sistemaren ga-
beziak pertsona askeak eta arduratsuak
prestatzeari dagokionez. Gertakarien pe-
dagogiari buruz ari natzaizue, hots, desber-
dintasun erabatekoa dagoela bi hauen
arteak: batetik, ikasgelan nagusi den lane-
rako metodoa eta eredu horrek ikasleei
ematen dien papera, eta bestetik, ikasle
horiengandik espero den jokaera demokra-
tikoa, kontseilukide diren aldetik dituzten
eskubideei dagokienez. Egunean sei ordu-
tan praktika pedagogikoak paper otzana
eta pasiboa ematen die: entzun, jasotakoa
buruan atxiki, asimilatu eta errepikatu. Eta
hilabeteak ordu batez, eskatzen zaie adie-
raz dezatela gaitasun kritikoa, eman deza-
tela egitateen eta balioen gaineko iritzi
pertsonala eta hitz egin dezatela jenda-
urrean eskolak ukatu egiten dien modu
horretan berean. Kontraesanaren gailurra
gertatzen da –ikasle zoliek, gehientsue-
nek, sumatzen dute, bai-, irakasleek, pro-
grama betez, parte-hartzaileak eta kriti-
koak izatera bultzatzen dituztenean gizar-
tearekiko eta munduarekiko, baina ez
ordea, jakina, ikasgelarekiko.

Eskolako joera izaten da minimizatzea (eta
maiz bazter uztea ere) ikasleek irakaslee-
kin eta familiekin ikastetxearen kontrolari
eta kudeaketari dagokionez dituzten esku-
bideak, zein ikasle diren aldetik dituzten
eskubideak (“beraien dedikazioa, ahale-
gina eta errendimendua objektibotasunez
balioetsiak eta ezagutuak izan daitezela”,
“beraien identitate, segurtasun eta duinta-
sun pertsonala errespetatua izan da-
din”...). Bateko paternalismoa eta besteko
etorkortasuna, gutxietsi egiten dira beraien
balizko ekarpenak. Eta hala ere, asko dute
esateko, helduek entzun nahi ez badugu
ere. Arintasun handiegiarekin tratatzen
ditugu beraien etengabeko kexak, eskolan
aspertzen direla, ez zaiela interesatzen
gure predikua –hots, curriculumak eskain-
tzen diena-. Adierazpen horiek ez ditugu
aintzat hartzen, “ikastea zaila da eta ez
dute eginahalik egin nahi” esaten dugu-
lako, eta irakasleak “ez gaude ikasleak

entretentzeko” esaten dutelako. Gutxi-
sentitzen dute, kexa mota hauen harira,
Daniel Pennac-ek (*Mal de escuela*) adie-
razten zuen zalantza, “ergelaren” barren-
koitasunaren misterio sakonaren aurrean:
hantxe dago, baina ez du deus ikasten.

Hala ere, bi kexa horietan laburtzen da
Bigarren Hezkuntzaren arazoaren zati
handi bat. Hurrengo urratsa ematen ba-
dugu, eta galdetzen badiegu zer den inte-
resatzen zaien hura, eskolan ematen ez
dieguna, eskaera zentzuzkoak aurkituko
ditugu, pentsarazteko modukoak. Hauxe
da, adibidez, Vallecasko BHIko Batxiler-
goko 1.eko ikasle den Verónicak eskain-
tzen ziguna, hilaren 16an, Lorenzo Luzu-
riaga kolektiboan gurasoei eta irakaslee-
kin egindako mahai-inguruan, aurtun curri-
culumari eskaini diogun mintegiaren bai-
tan: *guk nahi duguna da irakats diezagu-
tela nola hitz egin jendaurrean, nola pen-
tsatu gure kabuz, kritikoak izaten, institu-
tuan ditugun eskubideak ezagutzen eta
herritar gisa jokaera oneko azturak izaten.
Eta jakina, entzun gaitzatela eta orienta-
gaitzatela*. Verónicari berriz ere galdetu
beharko litzaioke, eta ziurrenik argituko
liguke bere ustez zer den “gure kabuz pen-
tsatzea”, “entzunak izatea”, “kritikoak
izatea”... on egingen liguke irakasleoi, baina
nago elkarrizketa horretan gutxitan sartzen
garela.

Irakasleak beraien joko zelaian

Ikastetxeetan parte hartzea irakasleen
kontua da. Bozketak jendetsuak izaten
dira, eskola kontseiluetako ordezkari-
rako hauteskundeak kasuen, %90 inguru-
koa, nahiz eta beti ez den izaten aski hau-
tagai postuak betetzeko. Batzuetan hauta-
gaiak hautagai dira zuzendariak eskatu
dielako aurkezteko. Parte hartzea altuxea-
goa da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikas-
tetxeetan eta ikastetxe itunduetan hamar
puntu beherago dago publikoetan baino.
Baina alferrik da egia ukatzea, datuen
atzean, eskola komunitatearen defenda-
tzaile sutsuak beharrean berotasun eska-
sekoak aurkituko ditugu, eta ziurrenik,
legearekiko errespetu epelekoak eta bete-
barraren zentzu nolabaitekoa dutenak.

Kasurik onenean, ikastetxearen funtziona-
menduaren gainean eztabaidatzen den
foro batean parte hartu nahi duten irakas-
leak, beraien iritzia eman nahi dutenak.

Gainera, beraien ohiko inguruan daude,
bilkuretan erabiltzen den hizkera beraien
da, ongi ezagutzen dituzte gaiak, alde-
z aurretik kontsulta egin diezaietke irakas-
leei jakiteko zein iritzi duten landuko diren
gaien gainean, eta unea iritsita, errazta-
suna dute lankideekin posizioak adosteko.
Baina, batez ere, gehiengoak dira kontsei-
luan eta ez dago deus onesterik irakasleen
kontrako iritziarekin.

Irakasleen sektore handi batean etsipenez
oroitzen da nola garai batean gaiak klaus-
troan irakasle *denen* artean eta *soilik* ira-
kasleen artean eztabaidatzen ziren, eta ez
orain bezala, beraien *ordezkariek* eskola
kontseiluan eztabaidatu behar dituztela,
kanpokoekin eta *kanpokoendako* agerian.
Eta kanpokoak bertan izatea aski arrazoi
da kontseiluan izateko: atzera ez egitea,
beste sektoreen aurrean. Horregatik, ira-
kasleak hagitik kritikoak dira legeak ikas-
leei eta familiei ematen dizkien eskumene-
kin. Batez ere irakasleen ustez beraienak
soilik diren eskumenei dagokienez.
Fernández Enguita-k irakasleen mesfidan-
tza hori egozten die faktore sozialei (klase
defentsa, maila kultural eta sozial txikia-
goko gurasoen aurrean batetik, eta beste-
tik, maila sozioekonomiko handiagoko
gurasoen aurrean) eta faktore psikologi-
koei (irakasleak zenbat eta ziurtasun gabe-
zia handiagoa izan beraien benetako gaita-
suneak, are eta arduratsuagoak izanen
dira beraien eskumen formalei dagokie-
nez).

Borroka horretan, irakasleek eztabaida
profesionaltasunaren eremura eramateko
joera dute; hor erabat desegokia da be-
raien eskumenak kanpokoek berengana-
tzea. Soilik beraiei, adituei dagokie iritziak
ematea eta gai profesionalen gainean
erabakitzea. Baina jarrera horrek nahita
nahasten du zer den hezkuntza eta zer
diren hezkuntzako edukiak (beraien dizi-
plinan adituak diren curriculumeko irakasgai-
etako espezialisten kontua) eta gurasoek
ongi erantzun ohi diote argudio horri

(eskolak transmititzen dituen balioak, eskolaren helburuen nolakotasuna da beraien ardura esparrua). Jakina, curriculumaren garapena soilik irakasleena den eskumena da, baina ikastetxearen hezkuntza lehentasunak finkatzea eta horri loturiko alderdi garrantzitsuen kontrola (diziplina, ikasleen emaitzak, ordutegia...), interesgarriak dira eta ikasleei eta ikasleen familiei eragiten diete, eta parte hartzea eskatzen duten kontuak dira.

Gatazka horrek, nahitaez, alde batera utzi ezin daitekeen errealitate batera igortzen gaitu. Izan ere, errealitate hori irakasleen gain dagoelako eta izugarri zailtzen duelako beraien lana. Gizarteak, eta hezkuntzaren gainean duen kontzepzioa islatzen duten legeek, eskolari kontraesankorrak diren helburuak eskatzen dizkiote, eta irakasleek ezinezko helburu horren bila lan egin behar dute ikasgelan. Ikasleak integratu behar dituzte, baina era berean, bikaintasuna landu behar dute. Balioetan eta jarreretan hezi behar dituzte, baina era berean, edukiez beteriko programa bat osatu behar dute. Ikasleak hezi behar dituzte solidarioak izan daitezen, baina era berean, errukirik gabe lehiakorra den gizarterako entrenatu behar dira... kontraesan horiek ez ditu gizarteak ebazten, ez ditu ebatzi mendeetan, eta zinismo handiz, irakasleen esku uzten ditu, curriculum bidez, eta ardurak alde batera uzten ditu. Kontraesana, beraz, ikastetxetara pasatzen da, kontseiluetara, eta irakasle bakoitzaren barrena. Irakasle hori, egunaren arabera, edo urtearen arabera, edo ikastaldearen arabera, Sokrates bat edo Herodes bat izanen da.

Egia esan, irakasleek familiak behar dituzte, eta familiek irakasleak, beraien jardura eskolatik kanpo luzatu ahal izateko eta beraien autoritatea eskola barruan indartzeko. Arazoa da irakasleek guraso mota bat nahi dutela: beraien argibideei kasu ematen dietenak, deitzen dituzte-nean agertzen direnak eta beraien autoritatea indartzen dutenak. Eta gainera, banan-banan nahi dituzte, banakako elkarrizketetan, ez elkarturik, eta ezta ere eskola kontseiluan diren ordezkari gisa. Baina, gurasoen gehiengoak ez du uste izaten hori denik bete behar duten papera, ez da,

bederen, beraien jarduerak izan behar duenaren gidoi osoa. Badagoelako paper bat izan egokitzen zaiena: eskatzen eta estimulatzeko duen elementu kritikoa izatea, kanpotik datorren ekarpen hori akuitua delako lanerako, eta laguntza adostasunik ezak zuzentzeko eta beraien lana hobetzeko.

3. Desengainuaren denbora. Zer hobe daiteke, eta nola?

Desertzioaren arrazoiak eta desarrazoiak

Parte hartzea elementu garrantzitsua da hezkuntzan, baina eskubide hau zalantzan jarria izaten da, eta gutxi erabiltzen da. Zergatik? Ematen ari diren azalpenak jasotzen ahaleginduko naiz, eta nire kautako beste oharpenen bat ere erantsiko diot.

Has gaitezen kontseiluek funtzionamendurako dituzten gabeziekin. Parte hartze organoak – eskola kontseiluak. Behar baino lehenago sortu ziren, edo zuzenagoak izateko, eskolan parte hartzeari edukia eman zioten legeak berandu iritsi ziren. Hain zuzen ere, LODE, parte hartzearen eskaera handia zen garai batean aldarrikatu zen, eta garai hartan zegoen bizipena zen Konstituzioa ez zela eskolara iritsi. Baina sortutako parte hartze organoek aurrean aurkitu zuten egoera zen hezkuntza oraindik ere 1970eko Lege Orokorrak arautzen zuela, eta hark, jakina, ez zuela parte hartzea gauzatzeko erantzukizunik ez aukerarik aurreikusi, eta Hezkuntzaren Lege Orokorrak indarrean jarraitu zuen 90.eko hamarkada hasi arte. Horrela, hasierako kontseiluak alderdi politikoenetan, boterearen gainekoetan zentratu behar izan ziren batez ere (itunak arautzea, ikastetxeen titularren papera marko berrian, zuzendariaren hautaketa...). LOGSE aplikatzen hasi zenerako, 90. hamarkadan, eta hezkuntza edukiak ematen direnerako (ikastetxeen autonomia, eskumenak curriculumaren zehaztasunean, eragileen parte hartzea gauzatuko duten proiektu zehatzak, ebaluazio kolegiatua...) kontseiluek hamar urte zeramatzaten higituz, oinarrizko eztabaidetan eta boterea banatzeko

borroketan.

Izan diren lege gorabeherak (LOPEG - 1995- eta LOCE -2002-), kontseiluak sortu zirenetik, beraien erantzukizun zatia ere izan dute. Legegileek parte hartzeko eskubidearen gainean egin izan dituzten interpretazio desberdinek erakusten dute, zailtzarrik gabe, zeintzuk diren gizartearen diren desadostasunak. Baina oinarri partekatuen gainean akordio bat sustatzetik urruti, aurkariak beraien posizioetan berretsi egin ditu.

LOCEk, bereziki kolpe latza eman zion Espainiako Konstituzioaren 27.7 artikulua aitorturiko eskubidearen eraginkortasunari (Leturia), “legeak hala behartuta” parte hartzen zen ikastetxetara, hots, araudia betetzen ez zutenetan, lege harekin ere ez zuten parte hartuko, nahiz eta orain arautik gutxiago aldenduko ziren. Baina 27.7 artikuluko eskubideak gauzatzeko zutenek murriztua ikusi zuten jardura eremua; ez soilik kontseiluari dagokion papera murriztuko zelako –jada ez zen kudeaketa organoa izan- baizik eta legeak hezkuntzaren beste elementu batzuei ematen zien norabideagatik, parte hartzea sustatu beharrean, indibidualismoa indartzen baitzuten eta zentzua kentzen baitzuten eskola erkidegoaren kontzeptuari berari. Ondoren, Hezkuntzaren gaineko Lege Organikoak kontseiluei kudeaketa organoaren izaera itzuli zien, baina bidean galduriko hasierako eskumenetako batzuk ez ziren berreskuratu.

Zuzena da esatea LOCEren interpretazio murriztaile hura bat zetorrela murgilduak gauden “postmodernotasunarekin”. Postmodernotasuna, ordezkapen gisa ulertuta: utopia soziala, aurrerabidearekiko fedearen eta ilustrazioko balioen orde, indibidualismoa eta hedonismorantzako jitea, carpe diem-a, niaren garaipena. *Kultura zibikoa kultura politikoaren* goi estadia denaren tesia bertan behera gelditu da. Eta testuinguru horretan, parte hartzea zerbait zaharkitua, ezdeusa, denbora galtzea dela ulertzen da. Hobe da adituen esku uztea hezte lana, eta erantzukizuna

ere beraien esku uztea. Zergatik ibili zalan-tzaka, itoaldi batean, zertarako eztabai-datu gurasoekin, edo beste lankideekin – moda horrek irakasleoi ere eragiten digu-, konponbidea duenarengana jotzea badugu? Joera horrek bat egiten du gure egunean “ikastetxea hautatzea”n jartzen den enfasiarekin, hura bailitzan giltzarria (edo alibia?) eta erantzukizuna besteren esku uztearen bukaera.

Faktore prosaiko eta hautemangarriagoak ere badira, eta ondorioz, aise hobe daitezkeenak, parte hartzea ezerosoa, aspergarria, ezatsegina eta baliagarritasun gutxikoa egiten dutenak. Lehenbizi, ordutegi aldrebesak (zaila da denon komenientziako ordua aurkitzea, baina saia gaitezen bederen kaltetuak ez daitezen beti berdina izan), bilkura inprobisatuak edo gutxi prestaturikoak, bertan eztabaidatuko dena lehenagotik aztertu ahal izateko alde aurreko dokumenturik ez izatea, eta gaizki moderaturiko bilkurak, eztabaida eskatzen duten gaien hautaketa egin gabe, batez ere, eduki handieneko egitasmoak eztabaidatzeari eta onesteari dagokionez. Zuzen-dari batzuek ez dituzte dokumentu horiek kontseilarien esku uzten, eta bilkuran baino ez dizkiete ematen, bertan irakurtzeko. Azkenik, gairik gatazkatsuenak dator: sektore bakoitzak zenbat ordezkari behar dituen. Izan ere, faktore honi leporatzen zaio ikasleen eta familien ordezkarien defizita. Gurasoen kasuan, beste elementu bat da ez dutela elkar ezagutzen eta zaila dela hautaturiko ordezkariak bozkatu zituzten familiekin duten komunikazioa, kontseiluan planteatu behar dituzten gaien gainean informatzeko eta adostasunak erdiesteko. Arazo hau da, bere osotasunean, birpentsatu behar dena bi sektoreen interesak eta ahotsa presentzia eragin-korragoa izanen dutela bermatzeko.

Badira pertsona batzuk, zintzotasunez onartzen dutenak parte hartzearen beharra eta abantailak. Zailtzak dituzte parte hartzea bideratzeko legeek hartu duten ordezkartza ez-zuzenaren bidearekiko. Lehen aipatu dut irakasle batzuen nostalgia klaustroekin; horri gehi dakioke irakasle batzuek elkartean lan egin nahiago dutela edota pedagogoa zenbaitek ikasge-

lan parte hartzeko formula zailagoendako duten zaletasuna. Batetik kexatzen gara ordezkartza “profesionalizatu” delako eta norbanakoak desmobilizatu direlako, baina beste aldetik, ordezkartza ereduari abantailak ikusten dizkiogu: egonkortasun baldintzak sortzen ditu erakundeetan, taldeetako kide batzuk espezializatzea ahalbidetzen du, eta demokraziaren praktikan entrenatzeko aukera ematen du (arauak, organoak, prozedurak); berez, hezkuntza kontzeptuarekin bat datorren funtsezko balioa da. Hezkuntza ulertzen da bere programazioan, kontrolean eta kudeaketan (hots, hezkuntza erkidegoaren eraketan) irakasleak, gurasoak eta ikasleak inplikatzeko dituen kontu gisa. Horregatik esan dut lehen ere eskola kontseiluetan ematen den desertzioak zailtzen jartzen duela hezkuntza erkidegorik den ere.

Parte hartzearen aurreko jarrerak eta etorkizunerako proposamenak

Parte hartzearen gaineko jarrera eta iritzia hiru joeretakoak izaten dira (Gil Villa, A. Leturia...). Lehenbizikoak, kontserbadore deitua, ulertzen du honez gero ikastetxeetan demokrazia parte hartzailea ezartzeko LODEk zuen asmoak iragarritako porrota izan duela. Eta beraz, egin daiteken gauza bakarra dela egiaztatzea eskola kontseiluak ezgauza eta ez eraginkorrak direla eta soilik informazio organo gisa mantentzea. Kontrako aldean, joera idealista, teoria pedagogiko eta sozial utopikoetan oinarriturik, eta irakasleengan erabateko konfiantza utzirik, irakas-kuntza parte hartzailea planteatzen duena, epe ertainera gizonaren emantzipazioa erdiesteko bitarteko gisa, prozesu gradual eta etengabeko batean, azkenik, gizakiak norbera eta gainontzekoak aurkitzen.

Erdian, errealista esaten dioten posizioa, zentzuzkoena dirudiena. Posizio honen oinarria da ebidentzia bat dela ikastetxeak, eta oro har, hezkuntza sistema, botere borrokarako gune bat dela, eta gaur egun boterea irakasleen esku dagoela. Onartzen du desorekak eta gabeziak daukela kontseiluetan, baina gorabehera ho-

riek horrela izanda ere, ohartzen da abantailak ere badituela. Ohartzen da parte hartze defizit ezin larriagoa dutela. Eta konstatazio horretatik abiatuz, azterketa bat egiten du ikusteko zein arrazoi dagoen parte hartzearen aurka, eta azkenik, proposatzen du parte hartzea hobetzeko neurri sorta zehatz bat. Bukatzeko, sorta honetako bi neurri aipatu nahi ditut: kontseiluek ekarri dituzten abantailak eta zein neurri proposatzen den, hemendik aurrera, parte hartzea eta funtzionamendua hobetzeko.

Hitz egin dezagun abantailen gainean. OHO, UBI eta LHko bost ikastetxetan (3 publikoak, 2 pribatu itunduak) 1993-4 eta 1994-5 ikasturteetan Miguel A. Santos Guerra-k eginiko ikerketa batean, gai honen gainean kontseilukideen iritzia jaso zituen. Ongi ikusten da horietan gero beste azterketa batzuek berretsi duten balioespena, eta gaur gaurkoz baliozkotzat jotzen dutena: a) pertsona edo estamentu zenbaitek ikastetxearekiko izan dezakeen feudalismoa hausten laguntzen du. Hezkuntza erkidego osoak erabakiak har badi-tzake ikastetxeko ordezkarien bidez, ikastetxea denona da; b) ahalbidetzen du ikastetxean sartzeko bestelako perspektibak dituzten pertsona eta taldeen pentsamendua, aire berria. *Klausura instituzionala* da ikastetxeen eraldaketarako oztoporik handienetako bat; c) ikastetxean gertatzen denaren berri izatea ahalbidetzen du...; d) aberastasuna errazten du, pentsamendu desberdinen arteko eztabaidaren bidez, ikuspegi desberdinen bidez eta laguntzak ematearen bidez. e) Lan profesionalaren kontrol demokratikoa, baina ez fiskalizazio modura, baizik eta gizarte erantzukizuneko lan gisa... Balantze hau guztia parte hartzeak sistema hobetzen duela esanez defenditzen ari garen tesian bete-betean sartzen da.

Eta buka dezagun parte hartzea sustatzeko jarduerekin. Neurri xume eta azkar-rrak dira, eta ez dute, berez, legeria aldatzerik eskatzen, ezta ere organismoak asmatzerik edo eskumenak erregulatzerik. Funtsean, kontua da erabat betetzea indarrean dagoen legeriak ematen dituen tres-

nak. Aipatuko dut Ana Leturiak arlo hone-tako espezialisten lanekin egiten duen zerrenda. Adibidez, prozesu parte hartzaileak laguntzen dituzten zuzendaritzak la-guntzea, parte hartzea hobetzea informa-zio gehiago eta sakonagoa emanez, kon-tseiluetatik urrutien dauden eragileen (familiak, ikasleak) inplikazioa bultzatzea, erabakietan eragiteko gaitasunik txikiena duten aldetik, funtzionamendua berrikus-tea aldian-aldian, ulertzeko nola indar sozial, politiko eta ideologikoez zaildu egi-ten dituzten eskolak demokratizatzeko saiakerak, eta azterketa horietatik irakas-penak ateratzea, hobekuntzan areagotu ahal izateko.

Neurririk esanguratsuenetako eta beha-rrezkoenetakoa bat da adostasun bideak muturreraino eramatea bozkatzera iritsi baino lehen, parte hartzearen kultura sus-tatzea. Ziurrenik, politikaren muturreko politizazioa, gaitzetsi egiten duguna, ez litzateke orain dagoen unera iritsiko hez-kuntza erkidegoko sektoreek ez balute nahi eta gai izan balira gai garrantzitsuen gainean printzipiozko adostasun irmoetara iristeko; adibidez, 27. artikulua zehazteke utzi zituen puntu haiei dagokienez, edo bere burua akonfesionaltzat duen estatu batean erlijiozko irakaskuntzak duen ego-erari dagokionez. Estatuko Eskola Kontsei-luan dudaren esperientziak baietsi didan inpresioa da. Zertarako eztabaidatu eta adostasunetara iritsi, norbere ideietako batzuk alde batera utziz adostasunetara iritsi ahal izateko, gehiengo parlamentari-oan izandako aldaketa batek arau bihur badezake alderdi bakoitzak defendaturiko maximoen programa. Horrela dago kontua.

Hasierako puntura itzuliko naiz. Parte har-

tzea gaur egun osatzen duten elementuak atera nahi izan ditut, ondoko asmoarekin: ikuspegiaren osotasunarekin gabeziak ikusi ahal izatea, eta horiendako konponbi-deak ematea. Esku artean funtsezko esku-bide bat dugu. Asko kosta zen eskubide honen ezagutza, eta hala eta guzti, ez da sobera erabiltzen. Eta hezkuntza sistema bat dugu, erreforma andana izan arren, erabateko loaldian duguna. Hezkuntza ikerketak eta lanerako gertu egon direnen esperientziak esaten digute parte hartzea berebiziko akulua dela motelaldian dau-den idiekin itaurrean egiteko. Bada, ekin diezaiogun idiokin laboratzeari, hartu deza-gun parte kontseiluetan, erabili ditzagun legean aitortzen dituen legeetako guzti guztiak. Labur esateko, bete eta eskatu da egin beharrekoa.

Baliteke alferrikakoa izatea denbora eta energia xahutzea parte hartu nahi ez dute-nak horretara konbentzitzen. Litekeena da horretarako eskubidea izatea. Baina alde batera utzi ezin daitekeena zera da, argu-dioak ematea, hots emaitzak, parte har-tzearen praktikatik zerbait espero duten haiei, eta oraindik ere denbora eta egina-halak emateko prest dauden haiei. Badaki-danez zuek talde horretakoak zaretela, animoak eman nahi dizkizuet, zuenari eusteko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 25ean

Aipatzen ditudan erreferentzia bibliografi-koak ondoko autoreena dira: Leturia Nava-roa, Ana, *El derecho a la participación educativa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Zarautz. Gipuzkoa, 2006. Gil Villa, F., *La participación democrática en los centros de enseñanza no universitarios*. CIDE. Madril 1995. Fernández Enguita, Mariano, *La profesión docente y la comunidad esco-lar: crónica de un desencuentro*. Morata, Madril, 1995. Santos Guerra, M.A; Como en un espejo, investigación sobre los con-sejos escolares de centro, in *Participación, autonomía y dirección*, koordinatzaileak: Garagorri, X. y Municio, P.Ed. Escuela Es-pañola Madril, 1997. Baixauli F., Ruiz L., Vives B., La cultura participativa en los centros de enseñanza, in *Participación, autonomía y dirección*, op. cit. José Luis San Fabián Maroto; Participar más y me-jor. *Cuadernos de Pedagogía*. 224. alea, Luis Gómez Llorente; La participación. *Participación Educativa*, 1. alea, 2006ko martxoa, 18-26 orr. Estatuko Eskola Kon-tseilua.

Joan Manuel del Pozo

HIRI HEZITZAILEA

1990ean Bartzelonan sortu zen gutunaren hogeit hamar printzipioak onartu eta sinatzea formalitate garrantzitsua izanda ere, erreformatu baino lehen -Genoa, 2004-, eta baita ondoren ere, **hiri hezitzaileak**, ordezkari demokratikoez gidatuta, hiriko kide guztiek duten ahalmen hezitzaile zentzu zabalean sustatzen eta gauza-tzeko bideak eskaintzen jarraitzen du, bai banaka eta bai taldeka hartuta ere. Hez-kuntzaren zentzu nagusietako bat ahal den hazkunde hoberena bultzatzea edo pertsonen eta giza taldeen ahalmenak eta proiektuak garatzea da; bestalde, interes-garria da erreparatzea pertsona eta era-kunde, elkarte, enpresa edo beste edozein motatako taldeen arteko elkarrekintzak hiriaren eremuan bizi diren guztien haz-kunde eta osotasunerako pizgarri izateko birtualtasuna duela, hau da, ahalmen hezi-tzailea duela. Esaten ahal da edozein giza ekintzak, banakakoak nahiz taldekakoa balio hezitzailea edo ez-hezitzailea duela,



giza ekintza oro ez baita guztiz neutroa edo axolagabea gainontzeko pertsonen garapen fisiko eta gizabidezkoarendako. Hiri hezitzaileak, hiriaren eremu publikoaren baitan pertsona eta taldeen arteko balizko ondorio guztiak eskuratu eta kontzientzia zabaltzeko ahalegina egiten du eta bere potentzialtasun positibo guztiak azaltzen saiatzen da, bere kide guztien aurrerapen pertsonala eta soziala hobetze aldera.

Aldaketak egungo hirian

Egungo hiri bakoitzak bere baitan handituz doan konplexutasuna sortzen du; konplexutasun horrek, hiri aberasten duen bitartean, arazoak sortzen ditu. Konplexutasuna ez da soilik munduan hiri batean edo bestean txertatzen diren pertsonen kopuruaren ondorioa: egunero, planeta osoan landa eremutik hirietara doazen pertsonen kopurua berrehun eta berrogeita hamar milakoa dela kalkulatu da. Hego Amerikan, Ipar Amerikan eta Europan urbanizazioak egonkortze aldera egin duen bitartean, bertan populazioaren % 76 dagoeneko hirietan bizi baita, Afrikan eta Asian aldaketa demografiko handiak gertatzen ari dira: kontinente hauetako biztanleen % 35 hiri eremuetan bizi da, baina 2030. urterako proportzio hau % 50era iritsiko dela kalkulatu da. Honek guztiak ondorio latzak sortuko ditu: auzo-pobreak sortzea, txabolismoa, kaosa eta bertan bizitzeko ezintasuna. Asian eta Hego Amerikan egun dauden 20 hiri erraldoiez gain -10 milioi biztanle baino gehiago dituzten- demografian adituek hazkunde hiri txikiagoetan metatuko dela aurreikusten dute, horrela 2015ean bat eta bost milioi biztanle arteko 59 hiri egonen dira Afrikan, 65 Latinoamerika eta Antilletan eta 253 Asian. Hau guztia aldaketa kuantitatibo handia da, baina XX. mendearen azken laurdena arte hiri bizi, ezagutu eta pentsatzeko izan dugun moduan aldaketa kualitatiboek lagundua -eta neurri batez sortua- dator. Aldaketa kualitatibo hauek batez ere komunikazio modu guztietan izandako aldaketa handian oinarritutako globalizazio prozesutik eratorri dira; bestalde, garapen teknologiko handiak aldaketa hauek erraztu ditu.

Ondorio hauetako batzuen aipa-

men hutsa egiten dugu soilik, pertsona, ibilgailu, produktu eta ondasun material edo materiagabeen mota ororen etengabeko mugimendu eta azkartzea; errealtate zibilaren mailakako ordezkapena -edo gutxienez erlatibizazioa- berau antzertu eta erakusten duten irudi, sinbolo eta erakusleihoengatik; gizabanakoen instrumentalizazio merkataritza eta kontsumoaren interesaren zerbitzuan; hiriaren kontzientzia eta memoria historikoaren galera progresiboa, egungo garai baldintzatua bizitzera bultzatzen duten mota guztietako albiste eta mezuen presentzia intentsiboaz ordezkaturia, hiri guztia etengabeko mugimenduaren arduragabetasunak eta kontsumorako publizitateak erraztua; harreman hurbilekoak eta buruz burukoak ordezkatzeko dituzten pertsonen arteko lotura urruneko eta birtualen ugaltzea; hiri-bizitza arrisku gisa hartzen duen indibidualismoa, subjektiboki nagusitasuna emanez faktoreari arrisku faktoreari baino, eta hiriak errazten duen etengabeko hartu-emanen nagusitasun postuak lortzeko lehia areagotzen den toki gisa ulertuz hiri; indibidualismo honek, aldi berean geroz eta handiagoa den babesa eskatzen du -sarritan neurri kanpoko- hasiera batean aukera gisa hartua izan den arriskuak berarekin dakartzan ondorioen kontra.

Bestelako analisiek azpimarrazten dituzte agertoki bikain gisa aldaketak azkartzeak dakartzan "unearen kultura" batendako ondorioak, zirkularra eta lineala ez den denbora bat, "puntillista" baizik, gure hirietako biztanleengan kulturaren ikusmolde "presentista" bat sortu duena, norbanakoen identitateen behin-behinekotasunak eta batzuen eta besteen arteko loturak markatuta dagoena, gure kultura askatasun indibidualaren muina irudikatu nahiko luke bezala. *Erreferentzia ziur edo solidorik ez duen* kultura honek, *likidua* modu argian, ez du ikasi eta metatzeko gogoia sustatzen, kontrakoa, gehiago ematen baitu urruntzearen, jarraitutasunik ezaren eta ahanzturaren kultura bat. Egoera horretan -definizioaren eta konpromisoaren ia hutsaren mailan- hiriaren eremu publiko demokratikoa eta gizarte eta lurralde kohesioa mehatxu handi baten pean daude.

Eremu publikoaren kontzeptu joriari dagokionez, itxura fisikoaren eta herritarren praktiken artean dagoen harremana aipatzen du Jordi Borjak, herritar, gizarte eta politika eskubide eta betebeharrak multzo bat erabiltzea ahalbidetzen duen estatutu bat bezala ulertuta; horrela zehazten du: "Eremu publikoaren kalitatea errazten dituen gizarte harremanen intentsitate eta kalitateagatik neurtzen ahalko da, taldeak eta portaerak nahasteko duen indarragatik eta identifikazio sinbolikoa, adierazpena eta kultur-integrazioa suspertzeko duen ahalmenarengatik". Duela gutxi, Innerarity-k, politikaren eraldaketan eta hobekuntza demokratikoaren zerbitzuan egindako hausnarketan hurrengo hau zioen: "Eremu publikoa arazoak adierazi eta interpretatzen diren toki bat da, tentsioak bizi diren eta gatazkak eztabaida bihurtzen diren tokia, bizitza sozialaren arazoak antzertzen diren tokia. Eremu publikoaren ideiak iritzi eta borondate kolektiboaren konfigurazio prozesu guztiak jasotzen ditu". Bauman-ek, bere aldetik, hiriaren eremu fisikoaren garrantzia "nahasteko" ahalmenarekin azpimarratu du, ondoren aipatzen diren hiri-politikak gaitzetsiz: "auzoak homogeneizatu eta ondoren elkarren arteko komunikazioa eta merkataritza ezinbesteko gutxienez murriztea (...), baztertu eta bereizteko nahia areagotzeko hutsik egiten ez duen formula da. (...) Elkarren arteko ulermenak eskatzen duen bat-egitea partekatutako esperientziatik hel- tzen ahal da soilik; eta esperientzia partekatzea pentsaezina da alde aurretik espazioa partekatzen ez bada".

Herritar mugimendu ugari, beren tokiko gobernu demokratikoekin batera, eremu publikoaren kalitatearen hobekuntzarako sustatu dituzten aurrerapenen artean hurrengo hauek nabarmentzen ahal dira: hiri-ingurunearen balioa handitzea, auzoen kalitatea hobetzea, edo hiri zentraltasun berriak sortu eta orekatzea; era berean, demokrazia herritara hobetzea, plan eta proiektuak hitzartzea eta horietan parte-hartzea, eta ondorioz, hiri-politikan tokiko gobernuak indartzea; eta bukatzeko, herritarren parte-hartzea dela eta,

etengabe berritzen ari den hiri-politikaren subjektu gisa herritarraren kontzeptua berregitea. Ildo honetan, Jaime Lerner-ek egiaztatzen du mugikortasunari eta jasangarritasunari dagokionez, hirietan desiragarri diren aldaketez gain garrantzitsua dela "identitatea, norbanakoaren eta bere hiriaren arteko sintesia adierazten duen bizi kalitatearen faktore gisa. Nortasuna, auto-estimua eta parte-hartze sentsazioa ertsiki loturik daude".

Hiri hezitzaileak, aztertzen den egoera konplexu, aldakor eta bizigarriaren aurrean, eta ondoriozko erronka handien aurrean, ezin du berak bakarrik zailtasun guztiak konpontzeko eta erronka guztiak gainditzeko gako izan. Ordea, ikusiko dugun moduan, aldaketen kontzientzia hartzea ahalbidetuko duten kalitate zibikorako eta gizarte bizikidetzarako giroa sortzen ahal du, bere konplexutasunean hobeiki orientatzeko, bere ondorio negatiboe-tako batzuk arindu eta gainditzeko eta aipatu aldaketa laguntzen duten aukera eta elementu positiboak sustatzen laguntzeko. Uste dugu gutunaren oinarrien irakurketa hobereenetako bat izaten ahal dela eremu publiko demokratikoaren kalitatearen arreta eta sustapenerako benetako programa bat izatea, hezkuntza sektorea ardatzetako bat bezala hartuta, inolaz ere eskusiboa eta baztergarria, baina bai nagusia eta laguntzailea. ONU-HABITATEko zuzendari Anna Tibaijuka-k, *State of the World 2007* lanari egindako hitzaurrean, mota honetako erakunde nazioartekoak, eskualdekoak eta tokikoak aipatzen ditu adierazi duela kalitate handiagoko aldaketarako eta orokorrean, hiri-jasangarritasunerako norabidean zilegitasuna sortzen laguntzeko baliagarri gisa.

Hiriaren komunitate dimentsioa funtsezkoa da heziketaren ikuspuntu bate-tik: ezinezkoa da herritarrak ulertzea bata bestearen parean modu hotz batean ondoan jartzen diren norbanako banandu gisa, baizik eta lankidetzeta eta elkarbizitza aktiboan diharduten pertsona gisa. Alboratze hutsak ez du hiririk sortzen, biltegi hutsak baizik. Soilik elkarbizitza parte-hartzaile eta interaktiboak eraikitzen du eremu hiritarra eta edukia ematen dio proiektu politikoei, bere zentzurik zintzoe-

nean "polis-aren" ideia eta kontzientziare-kin armonian dagoen "paideia" grekoaren izpirituari. Grezia klasikoaren eredu poli-tiko-kulturaletik abiatuta esaten ahal da gaur egun "hiri hezitzailea egiteak" "hiria osoki egitea" izan behar duela. Biztanleen parte-hartzea izanen duten hiriak osoki egite honetan datza beren balizko hezkun-tza hobereena-formala barne-, eta hiri ho-riek horrela bihurtzen dira guztiz hezitzaile; gisa berean, herritartasun osorako herrita-rraren hezkuntzan -baina ez solik hezkuntza formalean- dago pentsatzen ahal den eta posible den hiri hobereenaren hazia.

2004an Genoan egindako gutunaren erre-forma

Gutunaren 20 oinarriak berrantolatatu eta esanahi berria ematen zioten hiru ardatz kontzeptualen inguruan egituratu zen erreforma. Lehendabiziko printzipioa-ren ideiarekin, "hiri hezitzaileako eskubi-dea", bere interpretazio oinarrikoenean, esaten ari dena da soilik hiri hezitzaile baten testuinguruan hartzen duela osota-suna pertsona bakoitzak hezkuntza jasotzeko oinarritzko eskubidea zentzu formal batean edo eskolakoan. Beste modu ba-tean esana, pertsonen eskola-hezkuntza funtsezkoa eta beharrezkoa da, baina ez da aski: hiri hezitzailean *balio erantsi* bat dago eta herritarrek ere eskubidea dute horretarako; eskubide hau birtualagoa da eraginkorragoa baino, dagokien nazioar-teko eta estatuko erakundeetan hori onar-tzen ez den bitartean.

Bigarren eta hirugarren epigra-feak, elkartzen baditugu, ematen diote lehenengoari erantzuna bakoitzak bere aldetik baino: eskubide hori aitortuz gero, hiriak "hiriaren konpromiso" batekin eran-tzun behar du -bigarren titulua- "pertsonen erabateko zerbitzura" jarrita -hirugarren titulua-. Garrantzitsua da, has-teko konpromisoaren ideia azpimarratzea, egungo arazoak modu eraginkor eta zintzo batean kudeatzeko hiri batek duen bete-behar sinplearen eta bere administrazio demokratikoaren eskakizun etiko-politikoaren konnotazioa gaindituz; kon-promisoaren ideiarekin, eskatzen dena da aldeko jarrera aktibo bat, onartzeko berriki aipatu dugun "balio erantsi" horretarako

herritarrek duten eskubide; hots, eskola-koa izanen den hezkuntza hutsa, eta balio horren sustapen praktikoa eraginkorra. Dena dela, konpromiso honen subjektua soilik udal administratzaileak direla esaten duen irakurketak interpretazio murriztailea eginen luke eta ez litzateke bat etorriko gutunaren izaerarekin; egia esateko, ez da "udalaren" konpromisoaz hitz egiten, hiriaren konpromisoaz baizik; beraz, eta beti-ere ordezkari demokratikoen gidaritzeta naturalarekin, ulertu beharrezkoa da kon-promisoaren betebeharra hiri guztirako dela. Horrela, hiri hezitzailearekiko eskubi-dea, zentzurik hobereanean, guztiendako benetako eskubide-betebeharra bihurtzen da: ordezkariendako zalantzarik gabe, baina baita herritarrendako. Konpromiso hau, bestalde, "pertsonen zerbitzu oso-rako" da, hirugarren tituluak adierazten duen moduan, bere zentzu gramatikalean bigarren tituluekin nahita lotzen duena. Hau da, lortu nahi da hiriaren bizi den per-sona bakoitza hiriaren osotasunaren eta bereziki bere ordezkari demokratikoen arreta puntu sentiaraztea, modu eraginko-rrean, herritartasun eskubideen subjektu gisa eta bereziki bere ahalmen anitzak edozein adin eta egoeran osoki garatzeko pertsona gisa -hezkuntzaren xede klasiko eta nagusia- eta bizi kalitatea hobereena erdiesteko -gobernu demokratiko guztien objektu generiko eta oinarritzkoa, hiri hezi-tzaile batean posible den bakarra-.

2004ko erreforma dela eta, hasi-erako gutunari gehitu zitzaizkion alderdi berriak edo beren presentzia edo defini-zioa hobetu zutenak modu laburrean adie-raziko ditugu hemen, mende berriaren hasieran hiriaren ezaugarri eta behar berri-etara gutuna egokitzeke xedearekin. Erre-formaren sektore nagusiak hurrengoak izan ziren: lehenik eta behin pertsona guz-tiak beren bizitzaren zehar prestakuntza jasotzeko duten eskubidea eta beharra azpimarratzea. Printzipio hori, horren azkar aldatzen ari den mundu batean funtsezko eskakizun gisa onartua da nazioarteko foro ugarietan, ez soilik lan ahalmenaren etengabeko hobekuntzan pentsatuz, baita ahalmen familiarren, gizabidezkoen, komu-nikaziokoaren eta gizartearen hobekuntzan ere. Bigarren irizpide garrantzitsua izan

zen pertsona guztiek zerbitzu, eraikin eta hiri-ekipamendu guztietarako behar dute sarbidea hobetu eta unibertsalizatzea, hiri-elkarbizitzaren kalitatearen testuinguru batean behar izan nagusia dena, bereziki edozein egoera dela eta, ezgaitasun funtzionalak edo mendekotasunak dituztenen kasua. Arreta merezi duen beste alderdi bat azpimarratu zen ere, bere berezko ezaugarriak eta biztanleriaren garapena direla eta: elkarriketa eta belaunaldien arteko lankidetzak, adin guztietako pertsonen ahal den gizarteratze handiena eta ezagutzaren eta bizi esperientzien aniztasuna elkarren artean aprobetxatzeko. Helduekin edo adinekoekin eta irisgarritasunarekin zerikusia duten arestiko irizpideekin harreman zuzenean, eta ezagutzaren gizarte globalizatu berriarekin loturik, azpimarratu zen hiri hezitzaileak pertsona orori bermatu behar diola informazioaren eta komunikazioaren teknologietan prestakuntza jaso ahal izateko aukera, bereziki adina edo bestelako arrazoiak direla eta prestakuntzatik at dauden sektoreei arreta eskainiz; ez soilik tresna informatikoak trebetasunez erabiltzeko xedearekin, baizik eta bereziki eskuragarri den informazio kopuru handia hautatzen, ulertzen eta baliatzen jakiteko eta modu horretan garai batean irudikaezina zen gizarte-bazterketarako arrazoi berriak saihestu ahal izateko. Erreformak, beste alde batetik, gero eta beharrezkagoa den "garapen jasangarria" kontzeptuari eskaini zion arreta, espresuki aipatuta hiriaren eta naturaren arteko oreka, ingurumen osasungarri baterako eskubidea eta garapen jasangarri baten praktika egokietan parte-hartze orokorra. Bestelako jasangarritasun batek gure arreta deitzen du ere: jasangarritasun demokratikoa, gutunaren aitzinso-lasean esaten den gisan, gertatzen den ororen esparru berrian edo dimentsio orokorrean ez duena konfigurazio askirik; hau dela eta, gutun berriak, hasierako idazketarekin alderatuta, zenbait puntuetan bizitza demokratikoaren oinarritzko baloreen sustapenari, askatasunari, berdintasunari, kultura aniztasunari edo nazioarteko lankidetzak solidarioari buruzko erreferentzia indartsuago eta esplizituagoak jaso ditu; eta gutunari amaiera ematen dion azken artikuluan, kultura demokratikoaren oina-

rriak dei dakiokenari buruz, bereziki azpimarratzen du pertsona ororen prestakuntza, errespetua, tolerantzia, parte-hartzea, eta zera publikoarekiko erantzukizuna eta interesa bezalako balioetan eta hauen ondasun, programa, ondasun eta zerbitzu-etan.

Gutunaren oinarritzko printzipioak

Hala ere, bidegabekia eta deformatzailea litzateke gutunaren erreformaren irizpideei heltzea soilik; hasieran esan dugun bezala, gutun berriak, orokorrean, hasierakoaren izpirituarekin bat egiten jarraitzen du, are gehiago, erreforma hauek gutunaren izpiritua sendotzen dute.

Ondoren, gutuna sortzeko oinarriak azaltzen dira, xehetasun handirik gabe, alderdi nagusien sintesi kontzeptual gisa.

Lehendabizikoa, hiri hezitzaile guztien oinarrietako bat da: hiriak berez eskaintzen duen prestakuntza, entretenimendu eta garapen pertsonalaren aukerak berdintasun baldintzetan erabiltzeko eskubidea. Logikoa den bezala, hezkuntzaren udal politikekiko berezko interesa ere oinarritzko ezaugarria da, gizarte-justizia, gizatasun demokratiko, bizi-kalitate eta biztanleen sustapen marko batean bultzatzen diren politika horiek; bereziki bilatzen da balio erantsia gehitzen dion heinean, zabalatasuna, zeharkakotasuna, berrikuntza eta hezkuntza modalitate formal eta ez formalak eta hiriaren errealitate osoa ezagutzeko balizko modu desberdinak izatea, tradizionalki hezkuntza formaletik at gertatzen direnak.

Hiriaren beraren ezagutza horren ondorio natural gisa, hiri bakoitzaren berezko nortasunaren zainketaren balorea ezartzen da, bere konplexutasunean; hiriaren ohitura eta jatorriarena eta hizkuntzena, betiere gizarte integrazioa eta kohesioa lortze aldera. Hiri plangintza bideratuko da, bestelako hitzak erabilita, esparru publiko irisgarri, identifikatzaile, kohesio-natzaile bat sortzera, pertsonen garapen pertsonala, soziala, morala eta kulturala

errazteko. Hiri hezitzailearen izpirituaren giltzarria da parte-hartzea; topikotik at begi-bistakoa da hiriaren bizi demokratikoaren kalitateak lotura estua duela herritarrek bizitza kolektiboan egiten duen parte-hartzearekin: horrela, ezarri da hiri hezitzaileak herritarren parte-hartzea sustatuko duela ikuspuntu kritiko eta arduratsu batetik abiatuta, aski informazio izanik eta pertsonen antolaketa asoziatibotik abiatuta.

Bestelako alderdi garrantzitsuak dira haur eta gazteen ekimen eta autonomia jarrerak garatzea kulturaren, asialdiaren edo informazioaren bidez eta beraien prestakuntza ingurunearen lan beharretarako modu egokian bideratzeko. Seme-alaben hezkuntza lankidetzak on baterako baldintza gisa, familiak, hezitzaileak bezalaxe, hezkuntza-erantzukizun partekatuan lagunduko dien prestakuntza eta estimulua jasoko dute, azken hau bizitzan zehar jasoko duten prestakuntzaren aldaera oso adierazgarria da; era berean, prestakuntza hori zerbitzu publikoetako langileei zabalitzen ahal zaie, segurtasun indarretakoei barne hezkuntza eskaintzeko prest dagoen hiri oso baten estilo desiragarria azpimarratzen du, betiere zentzu zabalean, multzo koherente eta kohesionatu baten gisan. Ildo honetan, administrazioen arteko eta gizarte zibilarekin koordinazioaren alde egiten da, batez ere hirugarren sektorea



deitzen zaion horrekin.

Gutunak bere osotasunean iradoki duen alderdi nagusietako bat gizarte kohesioaren kontzeptuarekin laburtzen da. Maiz agertzen da zenbait artikulutan, ez beti esamolde berdinekin, baina hondarrean gauza bera adierazi nahi du: pertsona orok gizartean bere tokia aurkituko duen hiri baten alde lan egitea da kontua; bertan, politika aktibo bidez, bereziki immigraziotik heldu diren pertsonen edo errefuxiatuen gizarteratzea ahalbideratuz eta horiei hiri berarena balitz bezala sentiaraziz; non bazterketa bera izan den baztertua, jarrera indibidual eta kolektibo guztietatik gutxien hezten duena baita.

Gutunaren aitzinsolasaren azkeneko hitzak bereziki egokiak dira gutunaren izpiritua laburbiltzeko: "hezkuntzaren etapa formalean eta helduaroan benetako bat-egitea eman behar da, alde batetik hiriaren baliabideen eta prestakuntzarako ahalmenaren eta bestetik hezkuntza, lan eta gizarte sistemaren ohiko garapenaren artean. Hiri hezitzaileako eskubideak pertsona guztien arteko berdintasunaren, gizarte-justiziaren eta lurralde-orekaren printzipioen berme izan behar du. Honek guztiak tokiko gobernuen erantzukizuna azpimarratzen du hiriak biltzen dituen hezkuntza potentzialtasun guztiak gartzeari dagokionez, hiri hezitzailearen printzipioak bere proiektu politikoan jasoz".

Zalantzarik gabe, *Hiri hezitzaileen* bereizgarri dena hemen hauteman izana espero dugu: duen hezkuntza-ahalmen izugarria, ahalmen zibikoaren baliokide, osotasunean garatzen den hiri demokratikoak heziketa eskaintzen baitu formalki horrela nahi ez badu ere; eta gutunaren izpirituaren baitan hezkuntza ahalmena garatzeko asmoa duen hiri bizitza urbanoan, gizarte kohesioan eta gizalege demokratikoan hazten baita.

Iruñean, 2009ko apirilaren 25ean

Oharrak:

¹Hiri garaikidean izan diren aldaketak eta aldaketa horiek sortu dituzten ondorioen azterketa honek dituen edukien zati nagusi

sia Giza Zientzien Eskola Garaikidean José Luis González Quirós-ek, (edizioa eta sarerra) eta beste egileek *Ciudades posibles* liburuan egindakoetatik lortu da, Lengua de Trapo argitaletxea, Madril, 2003

²Anna Tibaijuka-k emandako datuak, *State of the World 2007* liburuaren katalanezko bertsioaren hitzaurrean: *L'estat del món 2007-El nostre futur urbà. Informe del Worldwatch Institute sobre el progrés cap a una societat sostenible*, Unescocat eta Angle argitaletxearen edizioa, Bartzelona, 2007, XVII. orrialdea. Ibid: eremu urbanoetan gaur egun bizi diren 3.000 milioi pertsonetatik, 1.000 milioi baldintza kaxkarretako auzo pobreetan bizi direla kalkulatu da. Eta are okerrago, erritmo berean 2030ean kopuru hori bikoiztu egingen da.

³Christopher Flavin, Worldwatch Instituteko presidentea, 2. oharrean aipatutako edizioa, XXV. Orrialdea.

⁴Zygmunt Bauman-en opuskulutik ateratako gogoetak, *Els reptes de l'educació en la modernitat líquida*, Arcàdia argitaletxea, Bartzelona, 2007

⁵1998an Jordi Borjak "Ciudadanía y espacio público" lanean aipatzen zuen "eremu publikoarekiko beldurra". Ez da eremu babesle bat, ezta babestua ere. Kasu batzuetan ez da segurtasuna eskaintzeko pentsatua izan, baizik eta zirkulatzea edo aparkatzea bezalako eginkizunetarako, edo eraikinen eta bideen arteko bazterreko eremua da soilik. Beste kasu batzuetan gizartearen *talde arriskutsuek* erabili izan dute: etorkinek, behartsuek edo baztertuek". Auzo Elkartea *Ciutat real, ciutat ideal. Significat i funció a l'espai urbà modernaren* baitan argitara emandako kolaborazioa "Urbanitats" 7. zenbakia, Centro de Cultura Contemporànea, Bartzelona, 1998.

⁶Ibid.

⁷Innrarity, D. *El nuevo espacio público*, Madril, Espasa Calpe, 2006, 15. orrialdea

⁸Bauman, Z., *Confianza y temor en la ciudad*, Arcadia argitaletxea, Bartzelona, 2006, 38. orrialdea

⁹*State of the World 2007*, 2. oharrean aipatutako edizioa, XXIII. orrialdea.

¹⁰*State of the World 2007*, 2. oharrean aipatutako edizioa XIX. orrialdea.

¹¹Oroitarazi beharra dago "-polis", hiriaren ideien eta kontzeptuaren sortzaile izan ziren grekoen artean sortutako "politéuesthai" aditzak, ez zuela "politika egin" esanahia bere egungo zentzu profesionalan, baizik "herritar gisa bizi", "herritartasunaren eskubideak modu aktiboan eta parte-hartzailean erabiltzailea"; hau da, herritar gisa bizitzea hertsiki lotua zegoen komunitatearen jardura publikoarekin. Bestalde, Jaeger-ek bere garaian adierazi zuen moduan, bizimodu horrek harreman zuzena zeukan "...rako hezkuntzarekin" edo "...ren kulturarekin" - "paideiarekin", bi zentzu nagusietan - herritarren parte-hartzea edo jarduerarekin ("politika", bere zentzu etimologikoan). Jaeger-en hitzetan: "Hezkuntza ez da ondatsun partikular bat, baizik eta, bere esentzia dela eta, komunitatearen jabetzkoa da. Komunitatearen izaera bere norbanako kideetan islatzen da, eta gizakia da 'zoón politikón', ekintza eta portaera ororen iturri". Jaeger, Werner, *Paideia: los ideales de la cultura griega*, F.C.E., Mexiko, 2. edizioa, 2. berrinprimaketa, 1971, 3. orrialdea.

¹²2004an Genoan aldatutako *Hiri Hezitzaileen Gutunaren* 1. eta 19. artikulua

¹³1., 8. eta 10. artikulua

¹⁴3. artikulua

¹⁵19. artikulua

¹⁶11. artikulua

¹⁷1. eta 2. artikulua

¹⁸20. artikulua

¹⁹1. artikulua

²⁰4. artikulua

²¹5. artikulua

²²7. artikulua

²³8. eta 10. artikulua

²⁴9., 12. eta 18 artikulua

²⁵13. artikulua

²⁶15. artikulua

²⁷14. artikulua

²⁸17. artikulua

²⁹15. artikulua

³⁰16. artikulua

José Iribas Sánchez de Boado

“Gizarteak hezkuntzan duen parte-hartzea. Hiri hezitzailea”.

Iruñeko udalbatzak 1995eko abenduaren 22an aho batez erabaki zuen hiri hezitzaileen gutuna izenpetzea eta Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarteari atxikitzea.

Aho batez hartutako akordio hori ez zen izan Iruñeko udal administrazioak hezkuntzarekin hartutako konpromisoaren berrespen “formal” bat. Hiri osoa izan zen, alegia, bere ordezkari legitimoen bidez, hezkuntzaren (kontzepturik zabalenean uler-tuta) dimentsio eta arlo guztietan lan egiteko borondatea azpimarratu zuena, ikuspegi global eta zeharkako batetik, bere herritar guztien garapen pertsonala sustatzeko eta horretan laguntzeko.

Iruña osoa izan zen, Udalbatza buru zela-rik, “hezitzaile” izateko konpromiso hartu nahi izan zuena eta agerian utzi nahi izan zuena ikastetxeek, noski, gure herritarrei zuzenduriko hainbat hezkuntza-modu era-biltzen eta sortzen dituztela bere jardun-ean, baina ez bakarrik ikastetxeek, baita herritarren parte-hartzeak, hiri-plangintzak, hornidura publikoek, kulturak, kirolak, ingurumeneko hobekuntzek, gizarte politi-kak, mugikortasun arloko politikak ere, baita –azken batean– hiriak eskaintzen dituen askotariko zerbitzuei dagozkien politikak ere.

Hezkuntza funtsezko tresna da pertsona guztiei ezagutza zientifikoaren, teknologi-koaren... onurak transmititzeko, eta noski, haurrei eta gazteei helarazteko. Baina garbi dago esparru hori gainditzeko duela; hezkuntza, izan ere, datuak, edukiak, infor-mazioa emateaz haratago baitoa –eta joan behar ere–, horrek duen garrantzia gutxietsi gabe.

Horregatik, hain zuzen ere, gure gazte-txoen, seme-alaben hezkuntza prozesuan

badira funtsezkoak diren bi faktore (ez dira bakarrik izango, ordea -ikusiko dugun bezala-): familia, noski, eta eskola; eskola jakin bat, non familiak funtsezkoa den lan horren zati garrantzitsu bat bere esku-zen duen eta berarengan konfiantza jar-tzen duen.

Tradizioz, gure seme-alaben hezkuntzaren erronkarik handiena hezkuntza erakun-deen esku, eskolaren esku, utzi da. Gaur egun, gizartearen konplexutasunak, ezagu-tzara iristeko bide berriek, globaltasunak eta kultura-aniztasunak, norberaren bizi esperientziak... eragin dute funtsezko hez-kuntza erakundea den eta izaten jarraitzen duen eskolak bakarka ezin erantzutea, erantzun behar ez izatea ez bakarrik bizi-tzen ditugun aldaketa zientifikoei, ezta gizarte eta kultura aldaketek ere ez.

Bestalde, gaur egun bezain garbi sekula ez da gizartean hauteman pertsonen hezkun-tza ez dela amaitzen ikasketak edo “etapak” amaitzen dituztenean. Argiago esanda: ez da amaitzen ikasleek azken kurtsoa eginda ikastetxea uzten dutenean. Hezkuntza ez doa eskolari atxikia, eskola hezkuntzaren oinarritzko zutabea bada ere. Baina pertsonaren hezkuntza, berez, pro-zesu amaitu gabea da, bizirik irauten duen bitartean pertsona amaitu gabea eta eten-gabeko prestakuntzan, hazbidean edo bilakaeran dagoen bezala.

Horrela, hezkuntzako eszenatoki berria eskolako hormez harantzago doa, hezkun-tza formala gaintzen du, eta gizarte ingu-runera hedatzen da, non guztiok bizirik gauden bitartean aldi berean subjektu aktiboak eta pasiboak garen. Espazio hau “sistema” hezitzaile bat ere bada, bizitzan zehar garatzen dena, eta sistema horren parte-hartzaileak familia eta hezkuntzako erakundeak, jakina, izateaz gain, askota-riko agenteak ere badira, hirian, gure ka-suan Iruñean, eragina dutenak.

XXI. mendeko Iruña, etengabeko bilakae-ran dagoen Iruña modernoa, itxaropenez ea aukerez beterikoa, hainbat erronkari aurre egiteko prest dagoenak, egiten du erkidego osoa izan dadila hezkuntzaren arduradun, eta ez bakarrik familia edo

hezkuntzako erakundea, ez bakarrik udala, hezkuntza zentzurik zabalenean hartuta eta pertsonen zerbitzu integralari begira.

Udalak, jakina denez, hor egon nahi du –egon behar du– guztien ahalmenen garatze librea bultzatzen eta laguntzen, bereizketa-rik eta bazterketarik gabe, eta aukera ber-dintasuna sustatuz. Hiriaren gaineko deba-tean gure alkate Yolanda Barcinak esan zuen bezala, udal gobernua *“konpromisoa hartua du Udala Iruñaren dinamizatzaile eta bultzatzaile izan dadin, eta ez bakarrik hiriaren administrazioa hutsa”*

Iruña, bere herritarrei bizi kalitate bikaina eskaintzen ahalegintzen diren hiri mo-derno guztiak bezala, egundoko presta-kuntza ahalmena duen hiri da, egunero balioan jarri behar duguna, gure herritar guztiek etekina atera diezaioten. Hiri mo-derno, “hiri hezitzaile” garelako aitortzea, prestakuntzarako, elkarbizitzarako elkar-trukerako, partaidetzarako, guztiendako ikaskuntza aukeren proiektu konpartitue-tarako aukeren sortzaileak garelako aitort-zea da, baita erronken sortzaileak ere, ezbairik gabe: kohesioari begirako erron-kak, errealtate kulturalen nahiz bestelako errealtate guztien errespetutik abiatuta; XXI. Mendeko Iruñaren nortasun aberatsa eratzen duten eta berarekin bat egiten duten etorkizuneko aukera posibleak uz-tartzeko erronkak. Gure berezitasunak eta gure aniztasunak, garen eta konpartitzen dugun mosaiko ederrak, izan behar dute aberastasun handiengoaren sortzaile, ez disfuntzioen sortzaile. Pertsonen eta elkar-teen arteko elkarriketa demokratiko eta errespetuzkoak eta kultura parte-hartzaile batek lagundu behar gaitu askatasunean eta armonian elkarrekin bizitzeko funtsez-koak diren balioak onesteko eta konparti-tzeko helburuari begirako bidean.

Ados gaude, zalantzarik gabe, Joan Ma-nuel del Pozorekin, hiri hezitzaileen 20. urteurrena ospatzeko *Educación y vida urbana* argitalpenean esaten duenean: *“Hiri hezitzaileen gutunaren printzipioen irakurketarik hoberenatarikoa, berriz, es-pazio publiko demokratikoaren kalitatea*

eskaintzeko eta sustatzeko benetako programa bat da, hezkuntzaren bektorea ardatzetako bat delarik, inolaz ere eskulaboa edo baztertzaila, baina bai nagusi eta laguntzaila”.

Gaur egun, iruindar gehienak, eta zer esanik ez Iruñera azken aldian Iruñera etorri gabe egon direnek, aitortzen dute urte gutxitan gure hiri zeharo eraldatu dugula. Eta horrela azpimarratu da beste batzuek hiri honetako bizi-kalitatearen gainean egindako hainbat azterlan eta azterketetan.

Ez gaitzen ez autolausengukeria, ez triunfalismoan erori. Ibiliz egiten da bidea. Ekintzak, errealitateak berme batzuk dira. Baina eraldatzeko falta diren gauzak dira gure erronkak (eta beti badira), eta erronka horiei begira gaur bezala bihar ere berresten dugu Iruña hiri hezitzailea izateko konpromisoa.

Bere garaian izenpetutako gutunak aitortzen du herritarrek eskubideak dituztela askatasunez eta berdintasunez baliatzeko hiriak eskaintzen dituen prestakuntza, entretenimendu eta garapen pertsonaleko baliabideak eta aukerak. Adierazten du, halaber, beharrezko neurriak hartu behar ditugula eskubide hori berdintasunez erabiltzea eragozten duten trabak kentzeko, traba fisikoak barne.

Horri dagokionez, iruindarrok aurrerapauso handiak eman ditugu, zalantzarik gabe. Bide horretan beti bada zer eginik, ordea. Mintza gintezke ikastetxe berriez edo berritu direnez, gure haur eskolez, Baluarte edo zaharberritu den Gaiarre antzokia; baita gure unibertsitateen eta ikerketa zentroen indarrak, kontserbatorioez edo Musikako Udal Eskolaz, Marraketa eta Pintura Eskolaz, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaz, gure 6 civioxez eta hauen jardueraz, gure Gazteriaren Etxeaz ere. Baita etorkinei laguntzeko zentroez, gure gizarte hornidurez eta zerbitzuez ere. Baita hiri jasangarri baten aldeko gure apustuaz, gure ingurumen museoaz, ikastetxeetako panel fotovoltaikeoz, Iruña berdeaz, gure parkeez eta lorategiez, Argako paseoz, oinezkoentzat irabazitako lekuez

ere. Baita gure harresiez edo gure ziudadelaz, gure ondare historiko, artistiko, folkloriko, gastronomiko nahiz eskulangintza-koaz...ere. Baita mugikortasuna errazteko jarri ditugun igogailu handi publikoez ere: Errotxapea eta Alde Zaharra lotzen dituztena (gertaera gogoangarria hiriko bi auzo horien arteko komunikazioan), hilabete gutxitan 100.000 pertsona baino gehiagok erabili dituzte. Esaten ahal dugu 4.000 espaloi behegintzeko lanak egin direla, gure hiriko semaforo guztiak erabilerrazak jarri direla itsuentzat, (Espainian aitzindaria, ONCEren arabera). ONCEk berak 2008an gure webguneari sari bat eman zion, % 100ean erabilerraza izateagatik, Espainiako udal guztietan bakarra, hain zuzen. Mintzatu gintezke joko egokituak eskaintzen dituzten gure haur parkeez... honetaz guztiaz eta beste hainbat gauzaz mintza gintezke, iruindarrok erdietsi ditugun hainbat gauzaz. Lorpen horiek guztiek egiten dute Iruña hiri irekiagoa, justuagoa, solidarioagoa eta hezitzaileagoa izatea guztiontzat.

Baina arreta jar dezagun eskutitzaren 5. artikulua zehazki proposatzen duen honetan: udalekook “eraginkortasunez” baliatu ditzagun hezkuntza arloan ditugun eskumenak (...) eta planteatu dezagun “hezkuntza politika zabala, zeharkakoa eta berritzailea, eta horren barruan hezkuntza formal, ez-formal eta informaleko hezkuntza modalitateak, kultur adierazpide guztiak, informazio iturriak eta errealitateari deskubritzeko bideak”

Gure hezkuntza eskumenen arloan aipatzekoak diren udal jardueren artean esan dezakegu Udalak 1995-96 ikasturtean, gutuna izenpetu zuen urtean, alegia, osotara 556 milioi eta erdi erabili bazuen, hots, 3.345.000 euro, gaur egun, 2009an, 9.361.207 euroko aurrekontua dagoela soilik ikastetxeen funtzionamendu eta mantentze-lanetarako, hezkuntza programa osagarrietarako eta ikastetxeentzako eta Guraso Elkartentzako.

Iruñeko ikastetxe publikoak modernizatzeko eta hobetzeko urte anitzeko gure planek, baita ikastetxe horietako bakoitzari urtero ematen zaion 6.000 euroek

(konponketa eta lan txikiak zuzen eta modu autonomoan kudeatu ditzaten) eragin dute, gaur egun, gure eskolen azpiegituren egoera orokorra hobea izatea. Eta gehiago nahi dugu, Nafarroako gobernua-
ren ezinbesteko laguntzarekin.

Gure gaztetxoek ikastetxei ahalik eta baldintzarik onenak ematea funtsezkoa dela zeharo sinesten dugu eta hauxe dugu horren fruitua. Lau hilabeteko haurrak direnetatik aitzina eskaintzen dira ikastetxeak: haurrentzako 12 udal eskolak (eta gehiago eraikitzen ari gara) gehi Iruñean kokatuta dauden Nafarroako Gobernuaren beste bostek, egiten dute Iruña hiri aitzindaria izatea gure txikienei eta bere familiei kalitatezko zerbitzua ematen.

Horri gehitu behar zaizkio Udalak Iruñeko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxei urtero ematen dizkien diru-laguntzak, eskolaz kanpoko jardueretarako eta Guraso Elkarteen jardueretarako edo liburutegietarako edo material suntsigarriak, zeinetarako 2009. urtean 373.900 euro erabili baitziren.

Bestalde, badago udal eskaintza zabal, berritzaile, askotariko eta plural bat, ondo-koek osatzen dutena: gure hezkuntza programa osagarriak (Ezagutu ditzagun Iruña eta bere hiri senidetuak”, antzerki tailerak, “Goazen irakurtzera”), arte erakusketetara, Gaiarre Antzokira, erraldoien konpartsara, Udaletxera... egiten diren eskola bisitak, bide-hezkuntzak, baita adin guztietarako pertsonen civioxetan eta Gazteriaren Etxean eskaintzen zaizkien gaztelaniazko nahiz euskarazko ikastaro-programazioak, euskarazko prestakuntza eskaintzak, atzerriko hizkuntzak ikasteko laguntzak).

Udalak dituen programetako hiruri ohar bat egingo diegu, seguraski hobekien islatzen baitute udalaren kezka ez bakarrik hezkuntzaren alderdi formalei aurre egiteko, baizik eta modalitate ez formalei ere bai. Programa horiek hauek dira: “Gurasoentzako prestakuntza programa”, “Goazen irakurtzera” programa eta “Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia arloko prestakuntza Guraso Elkar-

teentzako”.

Iruña hiri hezitzaileen gutunari atxiki eta hurrengo kurtsotik bertatik daude martxan lehenengo biak.

“Gurasoentzako prestakuntza” programak agian hobekien islatzen du hirian dauden interesen aniztasunari erantzuteko udalak duen kezka: erabiltzen duen formatu erabat pertsonalizatuagatik (“kartara” esanenezake), etengabeko elkarrizketan aritzeagatik programaren hartzaileak diren GEEkin, berauek nahi dituzten gaiak hizlariak eta egoera bakoitzean zer nahi duten erabaki ditzaten; baita ordutegi eta antolaketa moduei dagokienez erabateko malgutasunagatik ere.

“Goazen irakurtzera”ren formatuan ere ikastetxeek beraiek erabakitzen dute euren erritmoaren eta interesen arabera zer jarduera mota egin nahi duten eta zein hizkuntzatan (autoreekiko topaketak, kontalariekiko ahozko saioak, eta abar).

Azkenik, ezarri berria den Guraso Elkartentzako “IKT prestakuntzako programa”ren helburua ez da bakarrik gurasoek tresnak eta programak erabiltzen ikastea, baizik eta, batik bat, jakin dezatela zein den teknologia berriek eskaintzen dituzten ahalbide komunikatiboak, zeinetan euren seme-alabek eguneko denbora zati bat ematen duten. Beste helburu bat da egungo eta aurreko belaunaldien arteko haustura digitala handitu ez dadila

ekiditea, baita bazterkeria modu berriak ager daitezela saihestea ere.

Hezkuntza/eskola arloa alde batera utziko dut. Baina egin aurretik ez dut azpimarratu gabe utzi nahi Udal eta Probintzien Espainiar Federazioaren ikerlan baten arabera, udal langile laguntzaileek ikastetxeetan duten presentziari dagokionez (irakasleei laguntzeko eta instalazioak irekitzea eskola ordutegiz kanpo) Iruña dela ordutegi tarte zabalenak dituen.

Uste dut azken zati honetan (beste zatiak bezain garrantzitsua, ordea) gutunaren letra eta izpiritu osoa kutsatzen duen zerbait hartu behar dudala ahotan; izan ere, gutun horren 4. artikuluan proposatzen da hezkuntza arloko udal politikak beti testuinguru zabalagoan hartuak izan daitezela “justizia sozialaren, zibismoaren eta bere herritarren bizi kalitatearen eta sustapenaren printzipioetan sostengaturik”. Honi dagokionez, komenigarria da gogora ekartzea gure paktu zibikoa eta honen komunikazio eta kontzientziazio kanpainak.

Iruñak planteamendu teorikoetatik hezkuntza lana sustatzen duten neurri zehatzetara pasatu nahi izan du: gero eta gardenago izan nahi dugu: gardenak geure osoko bilkuretan (osoko bilkurak zuzenean Interneten bidez ikus daitezke, baita diferituan ere) gardenak gure Administrazioan: informazio aukerak izugarri ugaltu dira:

bertaratuz, telefonoz (010 eta sms erabiliz) edo bide telematikokoaren bidez. Zerbitzuen eta elkarteen gida xehea prestatu dugu. Herritarrek bisitatzen gaituztenetik bertatik hartu eta erantzun egiten diegu: lehen aldiz errolatzen direnei informazio eta ongi etorri gida bat ematen zaie euren ama hizkuntzan -11 hizkuntzatan dago-. Eta informazioaren ondotik, partehartzea ere gogotik ari gara sustatzen, asoziazionismoa eta boluntariotza bultzatuz, bilerak auzokideekin eta elkarteekin bultzatuz, eta nolabaiteko garrantzia duen proiekturen bat sortzen den bakoitzean, aurrekontu parte-hartzaileen esperientzietan inplikatuz. Prestatzaileei eta elkarteei prestakuntza emanez, zeinek zentro espezifikoak duten eta non aholkularitza tekniko eta juridikoa eskaintzen dugun. Banan banan bisitatu ditugu ehun elkarte eta gure esku dauden 24 ikastetxe publikoak... eta Pamploña Futura Plana baliatuz teknologia berriak bultzatu eta unibertsalizatzearen aldeko apustua egin dugu, leku publikoetan eta udal eraikinetan... wifi guneak sortuz. Egunez egun, herritarrak eta udala Iruña hiri hezitzaile bezala bultzatzen dugu.

Amaitzeko, ez dut aipatu gabe utzi nahi gaur egun erronka berri batean murgilduta gaudela: 2016an Iruña kulturaren europar hiria izateko hautagaia. Horrekin gogoeta bat sustatu nahi dugu Iruñak etorkizunean nahi duen hiri motaren gainean. Herritarrak dira egunez egun euren kultura egiten eta euren hiria eratzen dutenak. Erabat sinetsita gaude Iruña, gure Iruña zaharra, kulturaren hiriburu ona izan daitekeela. Eta hautatuak izan edo ez izan, ikastea eta hobetzea jarri nahi ditugu arreta eta ilusioa, gure ustez saiatze berak merezi baitu.

Hiri honen eraldatze prozesuak eskatzen du guztiok egunero geure egitekoak egitea eta beti behar ditu, jakina, gogoeta estrategiko bat, azterketa bat eta apustu bat.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardunaldi hau oso une garrantzitsua izango da gogoeta horretarako, zalantzarik gabe. Eskerrik asko posiblea egin izanagatik.

